

INGURUMEN KALITATEKO ESKOLARAKO PROIEKTUA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN 978-84-457-2529-0



Salneurria: 12 €

INGURUMEN KALITATEKO ESKOLARAKO PROIEKTUA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

INGURUMEN ETA LURRALDE
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2006

Ingurumen kalitateko eskolarako proiektua / [autoretza eta proiektuaren koordinazioa, Ángel Cantera ... et al.]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2006

p. ; cm.

Port. y texto contrapuesto en castellano: Proyecto para una escuela de calidad ambiental

ISBN 978-84-457-2529-0

1. Educación ambiental-Euskadi. I. Cantera, Ángel. II. Euskadi. Departamento de Educación, Universidades e Investigación. III. Euskadi. Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio. IV. Título (castellano).

504:37.03(460.15)

AUTORETZA ETA PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA:

Ángel Cantera. Ingurugela Donostia

José Manuel Echevarría. Serantes LHlko (Santurtzi) koordinatzailea

Asun Fernandez. Ingurugela Bilbo

Ane Galarza. Ingurugela Araba

Txema Hornilla. UPV/EHU. Hezkuntzaren teoria eta historia saila

Edurne Huesa. Ingurugela Legazpi

Gurutze Maguregi. UPV/EHU. Zientzia esperimentalen didaktika saila

Conchi Martín. Lateorro LHlko (Laudia) koordinatzailea

Joseba Martínez. Ingurugela Urdaibai

Iñaki Mezquita. Ugaro LHlko (Legorreta) koordinatzailea

ARGITARALDIA:

1.a, 2006ko abendua

ALE-KOPURUA:

1.000 ale

©

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila

INTERNET:

www.euskadi.net

ARGITARATZAILEA:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ

ARGITALPENAREN KOORDINAZIOA:

Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza

ITZULPENA:

IVAP/HAEeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

DISEINUA:

Canaldirecto/www.canal-directo.com

FOTOKONPOSIZIOA ETA INPRIMATZEA:

RGM, S.A.

Padre Larramendi, 2 (48012 BILBAO)

ISBN:

978-84-457-2529-0

LEGE-GORDAILUA:

BI-3458-06

Aurkibidea

AURKEZPENA	7
------------------	---

I. PROIEKTUAREN TESTUINGURU OROKORRA

1. Sarrera	11
2. Proiektuaren ezaugarriak	13
2.1. Ingurumen hezkuntza: aukera estrategikoa	13
2.2. Inguruarentzako erantzuna	13
2.3. Ikuspegia: Zer ulertzen dugu 'ingurumen-kalitateko eskolarekin'?	14
3. Proiektuaren plangintza eta antolamendua	17
3.1. Proiektuaren helburuak	17
3.2. Parte hartzaileak	17
3.3. Antolamendua eta lan prozesua	18
3.3.1. Abian jartzea	18
3.3.2. Antolamendua	19
3.3.3. Prestakuntza	21
3.3.4. Prozesua: ekintzan ikertzea	21
4. 'Ikerketa-ekintza' eredu metodologiko gisa	23

II. IKASTETXEEN PROIEKTUAK

5. Lateorro LHI. Laudio	29
5.1. Testuingurua eta ibilbidea	29
5.2. Jarraipena eta ebaluazioa	30
6. Serantes LHI. Santurtzi	35
6.1. Hastapenak	35
6.2. Lanera	36
6.3. Egindako bidea	38
6.4. Aintzatespenak	40
6.5. Erronka berriak	42
7. Ugaro LHI. Legorreta	43
7.1. Sarrera	43
7.2. Bidea	43
7.3. Hiru ikasturtetarako ezarritako egitasmoak	44
7.4. Eta gero zer?	46

III. EREDUAREN BALORAZIOA ETA BIDERAGARRITASUNA

8. Prozesuaren eta emaitzen balorazioa.....	49
8.1. Ebaluazioko proposamena eta tresnak	49
8.2. Proiektuaren ikastetxeetako ebaluazioa	51
8.3. Balantze laburra eta hausnarketa batzuk.....	52
8.4. Hau ez da amaitu	53
9. Ondorioak: esperientzia hori beste ikastetxe batzuentzat baliagarria izan al daiteke?	55
ERANSKINAK.....	57
1. dokumentua. Familientzako oharra.....	61
2. dokumentua. Bakarrik joan naiteke eskolara?	63
3. dokumentua. Familientzako inkesta	65
4. dokumentua. 6. mailako ikasleentzako inkesta	67
5. dokumentua. Lur kontratua	69
6. dokumentua. Patruila berdea	71
7. dokumentua. Proiektuaren jarraipena	73
8. dokumentua. Definizioa	75
9. dokumentua. Guraso eskola.....	77
10. dokumentua. Alkatearekin elkarrizketa	79
11. dokumentua. Konposta	81
12. dokumentua. Familiekiko komunikazioaren eta horien partaidetzaren ebaluazioa	83
BIBLIOGRAFIA.....	89

Aurkezpena

Garapen Iraunkorraren EAEko Estrategiak (2002-2020) onartzen du biztanleriaren hezkuntza eta trebakuntza beharrezko baldintza dela bertan ezarritako helburuetarantz aurrera egin ahal izateko. Beste alde batetik, Europar Batasunaren ingurumen-gaietako VI. Programak gizarte-eragile desberdinei eskatzen die garapen iraunkorraren eraikuntzan baterako erantzukizuna har dezaten. Nazio Batuen Erakundeak, bere aldetik, konpromiso hori mundu-mailan sustatu nahi du, eta horretarako hamar urtekoa (2005-2015) *Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren Hamarkada* izendatu du.

Eskolak, erreferentzia egin diegun gizarte-eragile horietariko bat denak, prozesu hori bideratu dezake eta bideratu behar du. Horretarako bere inguruari irekita egon behar du, biztanleria guztiari ulertzeko ezagutzak eta gaitasunak eman eta txertatzen den komunitatean esku hartu, eta bere inguruaren ingurumen- eta gizarte-hobekuntzarekiko konpromiso-jarrera eta -balioak sustatu.

Zeregin hori hezkuntza-kalitatearekin oso estu erlazionatua dago. Gaur egun ingurumen-hezkuntza eta hezkuntza-kalitatea nahitaez eskutik doaz, bereizita ulertu ezin diren bi kontzeptu dira. Horregatik dira hain interesgarriak proiektu honetatik ondorioztatzen dena bezalako proposamenak, *ingurumen-kalitateko eskola* eraikitzeko baliozko elementuak eskaintzen dizkigutelako.

Gainera, elementu horiek parte hartzen duten irakasleen hausnarketa pertsonalari eta taldeko hausnarketari esker sartu dira. Praktikaren inguruko hausnarketa, hori hobetzeko helburuarekin. Zalantzarik gabe, ikastetxeentzako jarduera-aztarna interesgarriak eskaintzen dituen esperientzia da. Hori da argitalpen honen helburu nagusia, animo eta lan ona egin!

JOSÉ ANTONIO CAMPOS

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburua

ESTHER LARRAÑAGA

Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailburua

I. PROIEKTUAREN TESTUINGURU OROKORRA



Sarrera | 1

Duela urte batzuetatik ikastetxeek ingurumen-hezkuntzako proiektuak egiten dituzte, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legea (LOGSE) indarrean sartu baino lehenagotik, eta horren bitartez zeharkako lerroek (horien artean ingurumen-hezkuntza) curriculum ofizialean tarte bat aurkitu zuten.

1990eko hamarkadaren hasierak ingurumen-hezkuntzarako berrikuntza garrantzitsuak ekarri zituen euskal hezkuntza-sistemaren esparruan: lehen IIHII (Ingurumenarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegia) sortu zen eta Hezkuntzaren Erreforma abian jarri zen. Momentu horretatik aurrera, IIHII hainbat lan-ildo garatzen hasi zen eta irakasleentzako prestakuntza eta aholkularitza, material didaktikoen prestakuntza eta hezkuntza-komunitatearen ingurumen-sentsibilizazioa ziren garrantzitsuenak; 2005. urtean Ingurugela izena jartzen diete.

Hala eta guztiz ere, denbora pasatu ahala, eta hainbat ikastetxek proiektuak abian jarri izan arren, ingurumen-hezkuntza maizegi natura-zientzien eta ekologiaren alderdi jakin batzuk lantzerako edo gertueko ingurua eta ingurumen-arazo *klasikoak* ezagutzera mugatzen zela ikusten genuen (Martínez Huerta, 1996).

Errealitate hori gainditzeko beharrezko jakitun ginen. Ingurumen-hezkuntza hezkuntzako berrikuntzaren eta hobekuntzaren zerbitzurako tresna indartsua izan daiteke eta izan behar da (Sureda, 1988).

Ikuspegi horretatik garrantzi berezia hartzen du eskolak eskaintzen duen inguruak —fisikoa, hezkuntzako eta harremanetako—, inplizituki edo esplizituki transmititzen ditugun balioen argitzea, ikasleei komunitateko subjektu aktibo bihurtzeko eskaintzen zaizkien aukerak, eta bertan geratzen diren egoerak aztertu, interpretatu eta baloratzeko. Antolamendu espazio-tenporala, baliabideen kontsumoa edo ikasleei erabakiak hartzeko eskaintzen zaizkien aukerak bezalako alderdiek zeresan asko dute guk defendatzen dugun ingurumen-hezkuntzako ereduan, hezkuntza integralaren helburuekin bat datorren ereduan, hiritargo aktibo eta arduratsuagoaren eraikuntzaren zerbitzura.

Bide horretan aurre egiteko benetako aukeren inguruan hausnartu eta esperimintatzeko helburuarekin, eskola ekologikoaren proposamena jarri genuen abian (IIHII, 1997). Nazioarteko gomendioak jarraituz (UNESCO-NBIP, 1988), ingurumen-kudeaketa eta -hezkuntza eskola-ingurua ingurumen orokorrak izan zitekeenaren adibide egiteko sartzeari, babestu eta hobetzeko modu egokiaren inguruan esperimintatuz.

Eskola ekologikoa programak, *Eco-school* nazioarteko sarearekin erlazionatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko 50 ikastetxe inguruk parte hartzen duten sare bat sortzea lortu du eta ikastetxe horietariko askok Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak nahiz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aitortu eta diruz lagundutako proiektuak egin dituzte.

Prozesu horretan zehar ikastetxeek curriculumeko edo kudeaketako alderdietan modu bakartuan eragitera mugatzen ez diren proposamenak jorrazteko aurkitzen dituzten zailtasunak ikusi ditugu. Zaila da programa orokor eta sakonak ezartzea, besteak beste, eskola-antolamendua, baliabideen kudeaketa arrazionala eta familien eta ikasleen partaidetza sartzan dutenak; ikastetxearen kultura eta estiloan eragiten duten eta horiek zehazten dituzten faktoreak.

Pilatutako esperientzia eta ingurumen-ikuspegia ikastetxeetan sartzeko bide berriak aurkitzeagatiko interesa kontuan izanik, eta hezkuntza-komunitatean ingurumen-kultura garatzeko helburuarekin, *eskola ekologikoaren* proposamenean sakontzeko beharra ikusi genuen, hala transmititzen diren eredu pedagogikoen inguruan hausnartu nola hezkuntza-ikasketan eta partaidetzan oinarrituriko hezkuntza-estiloak praktikan jartzeko. Hortik sortu zen *Ingurumen-kalitateko eskolarako proiektua*. Proiektu horren helburua bikoitza zen. Alde batetik, beste ikastetxe batzuentzako adibide izan litezkeen esperientzia berritzaileak abian jartzea; bestetik, prozesu horiek orokortzeko elementu gakoak aurkitzea ahalbidetuko zigun hezkuntza-ebaluazioa egitea.

2.1. INGURUMEN HEZKUNTZA: AUKERA ESTRATEGIKOA

Aurrez adierazi dugun moduan, proiektuak ingurumen-hezkuntzaren oinarriak hartzen ditu. Hori ez da egoera-erantzuna, ikuspegi teknologikoa gainditzen du baizik (Colom eta Sureda, 1989; Sureda, 1990), kultura-berrikuntza sakon bihurtzeko (Mayer, 1990). Horrek «hezkuntzako birkontzeptuazioa» eskatzen du kultura-eskaera berriei erantzuteko (De la Orden, 1989).

Horrela, ingurumen-hezkuntza berrikuntzaren zerbitzurako tresna indartsua izan daiteke eta izan behar da, hezkuntzako hobekuntzaren bideratzailea (Sureda, 1988). Colomen hitzetan «ingurumen-hezkuntza hezkuntzaren filosofia orokor berri bihurtzen da, agian etorkizuneko edo gure berehalako teknologiaren gizarterako egokiena [...] Ingurumen-hezkuntzak... [gizakiari] beharren eta aukeren artean egon behar duen beharrezko erregulazio- eta oreka-gaitasuna ematen dio eta, aldi berean, teknologia menderatzeko beharra eta horrek ingurumenaren onuran, eta ondorioz gizakiarengan eta gizartean, dituen eraginak azaltzen dizkio».

Hezkuntzaren garapen iraunkorrerako beharrezko *birmoldaketa* (UNESCO, 1997) ezarritako garapen-eremuan iraunkortasunerantz eta ekitaterantz orientatzean eragingo duen faktore estrategikoa izan daiteke eta izan behar du. Hori onartzen du 2002-2020rako Garapen Iraunkorraren EAEko Estrategiak; bertan aintortzen da ingurumen-hezkuntza iraunkortasunerantz aurrera egiteko beharrezko *baldintzetariko* bat dela (Eusko Jaurlaritza, 2002).

Beraz, ingurumen-hezkuntzak, hezkuntza-proiektuko alderdi jakin batera mugatu baino gehiago, bizimodu berri baten oinarri izan behar du, tokiko komunitatearen bizitzara irekitako hezkuntza-praktika sustatuko duen lorbidia, hezkuntza-komunitateko kideek, beren aukeren arabera, gizakien harremanak, elkarren artean eta ingurumenarekin, hobetzeko zeregin konplexu eta solidarioan parte har dezaten.

2.2. INGURUARENTZAKO ERANTZUNA

Euskadiko gizarte-, politika- eta ingurumen-inguruak aldaketa garrantzitsua izan du azken hamarkadetan, lorpen teknologiko handiekin batera, ingurumen-arazo larriak daude, egiaztatu eta aitortuak, eta landaguenari lotutako erreferentzia eta jarduera tradizional ugari galdu dira. Lehen ezagutzen ez ziren immigrazio-fenomenoak gertatzen dira, biztanleria aldatu eta nahastu egiten da, eta politikan nortasuneko, Europako eta garapen iraunkorreko helburu berriak ezartzen dira.

Eusko Jaurlaritzak egindako gizarteko eko-barometroek kontraesanez betetako euskal gizartea erakusten dute, bere burua ingurumenarekin sentsibilizatutakoa bezala adierazten duena, baina geroz eta energia

eta baliabide gehiago kontsumitzen dituen, ibilgailu motordun gehiago erosi eta erabiltzen dituen eta, ondorioz, autobide eta aparkaleku gehiago eskatzen dituen.

Xahubide hori eta horren ondorioak aitortuz, eta Europaren eta garapena eta ingurumenari buruzko nazioarteko beste goi-bilera batzuen ildoan, Eusko Jaurlaritzak 2002ko ekainean 2002-2020rako Garapen Iraunkorraren EAEko Estrategia onartu zuen, non biztanleria guztiari eskatzen dion, eta bereziki erabaki eta ingurune horretan eragiteko gaitasunik handiena duten sektoreei, beren jardueren eragin narriatzailerak gutxitzeko neurriak hartu eta ingurumena zain dezaten, garapen ekonomikoa eta bizi-kalitatea bateratzen dituen garapena lor dezaten.

Ikastetxeek ezin dute testuinguru eta jarraibide horietatik kanpo egon, tokiko errealitatearen azterketan inplikatu behar dute, hori ezagutu, interpretatu eta kritikoki aztertzearen bitartez.

Hezkuntzak gizarte-funtzio ukalezina du, pertsonak eta taldeak, aniztasun handia adierazten dutenak, komunitatean eta gizartean integratzen laguntzearena. Gizarte-funtzio horri lotuta dago bere funtzio politikoa, hiritar arduratsuak prestatzea, eta kultura-funtzioa, sorkuntza eta zentzu estetikoak garatzea, jakintza transmititu eta beste tradizio eta sineskerak onartzea bilatzen duena norberarenak aintzat hartu eta aldatuta.

Hezkuntzako zeregina, beraz, gazteak pentsatu eta jarduteko beste modu batzuekin harremanetan jartzea erraztea ere bada, indibidualismoa, konformismo soziala eta lehiakortasuna ezaugarri dituzten eredu nagusiak zalantzan jar ditzaten.

Inguruari erantzuteak eskolaren eta komunitatearen artean dagoen hesia hautsi eta ikasleak erabakiak hartzean, partaidetzako kulturaren eta bere ikastetxearen eta inguruaren kudeaketan trebatzea esan nahi du, mundu bidezkoago eta iraunkorragorako beharrezko kultura-aldaketak lagunduz.

Antolatze moduen, inguruarekin dituzten harremanen, ingurumen-kudeaketako moduen eta curriculumezko edukien inguruan hausnartu eta inplizituki edo esplizituki ikastetxeetan transmititzen diren balioak argitzeko, Ingurugelak *Ingurumen Kalitatea* proiektua jarri zuen abian parte hartzen zuten ikastetxeek aldagai baldintzatzaileak iker zituzten eta, hausnarketaren eta ekintzaren bitartez, beren metodoak, curriculum eta antolamendua alda zituzten, ingurumen-hezkuntzarekin eta iraunkortasunarekin bat etortzeko.

2.3. IKUSPEGIA: ZER ULERTZEN DUGU 'INGURUMEN-KALITATEKO ESKOLAREKIN'?

Hezkuntza-kalitatea asko eta anbiguotasunez erabiltzen den kontzeptua da eta horrek interpretazio desberdinak eragiten ditu. Hezkuntza-kalitateari *ingurumen-kalitateko eskola* proiektuan eman nahi zaion zentzua banatutako lehentasunezko balioak dituen talde edo erakundearena da eta balio horien artean daude hurbileko inguruarekiko, ingurumenarekiko eta garapen iraunkorrekiko ardura. Curriculuma berritzeko, etengabeko prestakuntzarako eta koordinazioko eta partaidetzako estrategia eraginkorrak bilatzeko prest dagoen taldea.

Horrek kontsumo moderatuagoarekiko konpromiso kolektiboa eta aniztasunarekiko errespetua bultzatu eta sustatzen duten pertsonak behar ditu. Garapen iraunkorraren eta elkarmendekotasunaren inguruko ezagutza eta banatutako balioak ere behar ditu, bai eta azertu, prebenitu, negoziatu eta adosteko gaitasunak hoberen garatzen dituzten metodoen ingurukoak ere.

Azkenik, partaidetzako egitura demokratikoak eta pertsonen arteko eta gizarteko harreman eraginkor eta adeitsuak behar ditu geletan, klaustroetan, familiekin eta komunitatean.

UNESCOren *Hezkuntzak altxor bat ezkututzen du* (Delors, Koord., 1996) txostenean bildutako hezkuntzaren lau oinarriak hartzen baditugu kontuan *Ingurumen Kalitateko Eskolaren* funtzioak honakoak izango lirateke:

- Gizaki guztien bizitza errespetatu eta justizia sozial handiagoa lortzeko elkarrekikotasuneko eta lankidetzako harremanak ezartzen *ikastea*.
- *Ezagutzen ikastea*, ez objektuen errealitateak nola funtzionatzen duen bakarrik, bai eta gizakiek eta gizarteek ere. Nola erlazionatzen diren eta nola konpon daitezkeen gaur egun larrienak diren arazoak: pobrezia, gerra, xahutzea eta baliabide naturalak galtzea eta kutsadura.
- Baliabideen eta biodibertsitatearen erabilera iraunkorra egiten, erabakiak hartzen eta arazoak konponatzen *ikastea*. Talde batean parte hartzen ikastea gaur egungo gizarte- eta ingurumen-baldintzak aldatzeko.
- *Elkarrekin bizitzen ikastea*, ikuspegi, kultura eta *jakintza* desberdinak onartuz. Beste arrazonamendu eta sentimendu batzuk entzuten ikastea. Gehiago hobe bizi daitezen gutxiagorekin bizitzen ikastea.

Horiek dira gaur eskolak planteatuta dituen erronkarik garrantzitsuenak eta proiektuak ingurumen-hezkuntzaren planteamenduekin koherentea den erantzuna eman nahi du. Erantzun hori hiru ardatz nagusiren inguruan antolatzen da: eskola-inguruko ingurumenaren hobetzea, berrikuntza eta hezkuntza-kalitatea eta txertatzen den komunitateko partaidetza.

Beraz, *ingurumen-kalitateko ikastetxe* batez hitz egiten dugunean ondoko ezaugarriak dituen eskolaz ari gara:

- Ingurunearekin errespetuz erlazionatzen da eta baliabideak neurritz kontsumitzen ditu.
- Aniztasuna baloratzen du, hala biologikoa nola kulturala.
- Hezkuntza-komunitateko sektore desberdinen partaidetza sustatzen du.
- Elkarrizketarako eta erabakiak hartzeko gaitasun sozialak garatzen ditu.
- Etengabeko hobekuntza-prozesuan inplikatzeko da.
- Gai komunetan alternatibak eta partaidetza bilatzeko metodoak sustatzen ditu.
- Bere praktikaren inguruko hausnarketa egiten du bere curriculuma eta jarduteko, antolatzeko eta erlazionatzeko moduak aldatzeko erreferentzia gisa ingurumen-hezkuntza eta garapen iraunkorra hartuz.

INGURUMEN KALITATEKO ESKOLA

- Ingurunearekin errespetuz erlazionatzen da, aniztasuna eta tokiko ekosistemak baloratuz.
- Baliabideak neurritz eta modu eraginkorrean kontsumitzen ditu.
- Batzuetan eskolaren eta komunitatearen artean gertatzen diren desadostasunak gainditzen saiatzen da.
- Elkarrizketarako, erabakiak hartzeko eta gai komunetako partaidetzarako metodoak praktikan jartzen ditu.
- Hurbileko ingurumena, horren arazoak eta horien konponbideak aztertzen ditu.

Proiektuaren plangintza eta antolamendua

3

3.1. PROIEKTUAREN HELBURUAK

Proiektu horren helburua hiru urtetan zehar Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxetan bertako gizarte-, hezkuntza- eta ingurumen-errealitatea landu den lankidetzako ikerketa-prozesuak esperimentatzea izan da; *ingurumen-kalitateko eskolaren* proposamena sakon esperimentatu da eta kudeaketa- eta antolamendu-prozedura demokratikoak ezarri dira. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Berrikuntza Bakarreko proiektu gisa hartu ditu, Ingurugelaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen aholkularitza izan dute eta gaur ikerketa horren emaitza teoriko eta praktikoak beste ikastetxe batzuei zabaltzeko moduan daude.

Proiektuaren helburuak ondoko koadroan adierazten den bezala jaso ziren:

HELBURUAK

- Ingurumen-kalitatearen kudeaketa hezkuntzako zereginean sartzea.
- Inguru natural eta sozialaren erabilera didaktikoa eta komunitateko inplikazioa sendotzea.
- Antolatzeko moduak, curriculumetako edukiak eta transmititzen diren ingurumen-balioak berrikusi eta hobetzea.
- Ingurumen-baldintzak hobetu eta gatazkak elkarriketaren eta adostasunaren bitartez konpontzea.

3.2. PARTE HARTZAILEAK


Ingurumen-kalitateko eskolarako proiektuan parte hartu duten *ikastetxeak* honakoak izan dira:

- Lateorro LHI, Laudio (Araba).
- Serantes LHI, Santurtzi (Bizkaia).
- Ugaro LHI, Legorreta (Gipuzkoa).

Proiektuaren benetako protagonistak izan dira, orientazio komun eta orokorren barnean, beren lan-proiektu propioak garatu dituztelako. Ezaugarrietan jarriz gero arreta, hiru ikastetxe desberdin dira: tes-tuinguru sozioekonomikoa, tamaina, irakasle-kopurua, irakasteredua, etab. Hala eta guztiz ere, guztiek bazuten zerbait komunean: ez ziren hutsetik hasi. Proiektuan sartu zirenean jada esperientzia zabala zuten ingurumen-hezkuntza lantzean. Proiektua beren prozesuko beste pauso bat izan da.

Ikastetxeez gain, proiektu honetan honako eragileak aipa ditzakegu:

- Ingurugelak, proiektuaren erakunde sustatzaile gisa, jarraipena eta aholkularitza eskaini du hiru proiektuak praktikan jartzeko eta irakasleen prestakuntzaz eta material didaktikoez arduratu da.
- Beste alde batetik, Unibertsitatearen ekarpena ikerketa-lanaren sistematizazioa eta, IIHIIrekin lankidetzan, berrikuntza, prestakuntza eta proiektuen kudeaketako prozesuen dinamizazioa izan dira.
- *Hezkuntzaren Berrikuntzako* ordezkari batek ziurtatu du prozesuan Hezkuntza Sailak pedagogia-berrikuntza garatzeko emandako ildoak jarraitzen direla.



3.3. ANTOLAMENDUA ETA LAN PROZESUA

3.3.1. Abian jartzea

2000-2001 ikasturtetik aurrera proiektu hori aurrera eramatearen ideia lantzen joan da. Ikasturte horretan, Ingurugelaren hasierako ideia aztertu eta proiektua aurrera eramateko aukerak baloratu ziren. Ideia nagusia ikastetxeetako ingurumen- eta hezkuntza-arazoetan beren eguneroko praktikatik abiatuta sakontzea zen, *arazo-egoeren* inguruan hausnartzeko aukera izateko, eta horiei erantzunen bat ematea.

Era berean, erreferentzia-ereduak aurkitu nahi genituen, proiektuan murgildutako ikastetxeak beste batzuentzat erreferentzia izan ahal izateko.

Hasierako proiektua Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari aurkeztu zitzaion eta horrek bere oniritzia eman zuen. Beste alde batetik, proposamena indartzeko, bereziki ikerketa-metodologiaren inguruko alderdietan, Ingurugelak kanpoko proiektuak bilatzea erabaki zuen, nagusiki unibertsitate-munduan.

Euskadiko nahiz kanpoko pertsonekin hainbat harreman izan ondoren, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle desberdinekin akordio batera iritsi zen, Ingurugelarekin batera, esperientzian parte hartzen zuten ikastetxeen jarraipena eta aholkularitza egiteko.

Horrela, Ingurugelako teknikariek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako ordezkari batek eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek osatutako talde bat eratu zen.

Kanpoko batzorde horrek izan zituen zereginen artean *hizkuntza komuna* eta proiektuaren egitura eta garatu beharreko metodologia egokitzea ahalbidetuko zuen lan-esparru bat sortzea daude. Helburua ikastetxeen kalitatea eta horien jarduera didaktikoa hobetzeko hausnarketa-prozesu bat egitea zela kontuan izanik, jarraitu beharreko metodologia *ikerketa-ekintza* izango zela adostu zen. Era berean, talde hori prozesu guztian erreferentziako «kanpoko eragile» bihurtu zen.

Horrekin batera, Ingurugelak Lurralde Antolamendu eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarekin nahiz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketakoarekin prozesuaren garapenerako garrantzitsuak diren alderdi batzuk jorratu zituen: ikastetxeek lan-proiektu bat aurkeztu behar zuten, hautatu ondoren, Hezkuntzaren Berrikuntzako Proiektu bezala hartuko zena, garrantzi berezia emanez gelako aplikazioaren alderdiari. Proiektu horiek urtekoak izango lirake, berritzeko aukerarekin, betiere ondoko deialdietan aurkezten baziren. Administrazioak nahiz parte hartzen zuten eragile desberdinek hartutako konpromisoa hiru urterako zen.

Ikastetxe interesatuek beren proiektuak aurkeztu zituzten deialdi publikoaren ondoren hiru hautatu ziren, Lurralde Historiko bakoitzeko bat. Ikastetxe horiek Lateorro HI (Araba), Serantes LHI (Bizkaia) eta Ugara LHI (Gipuzkoa) ziren.

3.3.2. Antolamendua

Proiektua 2001eko irailean hasi zen eta 3 ikasturte jarraietan jarri da praktikan. Ikastetxe bakoitzeko irakasleek hausnarketa- eta erabaki-talde egonkorak sortu eta curriculumak berritu, ikastetxeen ingurumenarekiko jarrera hobetzeko eta partaidetza-bideak dinamizatzeko ekintzen urteko planak abian jarri zituzten.

Hasieratik, lana antolatzeko funtsezko lau zeregin eta hausnarketa eta aldaketarako lau esparru identifikatu ziren.

Zereginak eta ekintza-esparruak

ZEREGINAK	ESPARRUAK
Hausnarketa eta antolamendua Praktikan jartzea Finkatzea eta komunikazioa Ebaluazioa eta jarraipena	Irakaskuntzako ekipoa eta praktika Gelaren kudeaketa Ikastetxearen antolamendua Curriculumak

Zeregin horiek dinamizatzeko ikastetxeetan lana dinamizatuko zuen Ingurumen Batzorde bat eratzea proposatu zen. Aurrerantzean, batzorde horiek ikastetxe bakoitzean lana koordinatu nahiz *ikerketak-ekintzak* prozesuak garatuko zituzten lan-taldeak izango ziren.

Horrez gain, beste lan-talde batzuk egotea biltzen zen. Zehazki, ondokoak izan dira lan-esparruak:

- Kanpoko taldea: aholkularitza, prozesu guztiaren jarraipenaz eta ikastetxe bakoitzaren beharrak antzemateaz arduratu da erantzunak proposatzeko.
- Ikastetxe bakoitzeko talde koordinatzailea: ikasturte hasierako prestakuntza-saioen hartzaile zuzena, ikastetxe bakoitzean landu beharreko arazoa identifikatzearen eta horietan prozesua dinamizatzearen arduraduna.
- Ikastetxe bakoitzeko klaustroa: aholkularitza-taldeak jasotako prestakuntza-prozesuen zeharkako hartzaile. Lan-saioak egin ditu proiektuaren koordinatzailearekin eta funtsezko papera izan du ikastetxe bakoitzeko *hezkuntza-komunitatean* proiektua garatzerakoan.
- *Ikastetxe bakoitzeko hezkuntza-komunitatea*, proiektuan inplikaturako eragile guztiak biltzen zituena.

Baina zein izan da aipaturako esparru eta lan-taldeen lotura? Zein izan da prozesu honetan inplikaturako ikastetxeen arteko erlazioa?

Jarraian eskematikoki laburtzen dugu nola gauzatu den.

Aurrez adierazi dugun moduan, ikastetxe bakoitzak bere proiektua egin zuen, Proiektu orokorrean definitutako ikuspegi orokorra banatzen zuena. Horrela, ikastetxe bakoitzak bere helburu propioak definitu eta *ekintza-plan* bat egin zuen komunean hartutako eredu metodologikoaren (*ikerketak-ekintza*) planteamenduak jarraituz. Era berean, ikasturte bakoitza amaitutakoan, proiektua elikatzen zuen memoria bat egiten zuen.

Ikastetxe bakoitzak Ingurugelako pertsona baten zuzeneko aholkularitza izan du eta pertsona horrek *Ingurumen Batzordearekin* harreman estua izan du, haien beharrak bilduz, prestakuntza-saioak garatuz, material didaktikoak eskainiz eta, ahal zen neurrian, beren eskaerei erantzunez.

Unibertsitateko irakasleak bilera batzuetara joan dira zalantzak argitu, prestakuntza-saioak eman eta abarretarako.

Kanpoko batzordeak, ia hilero bildu denak, ikastetxeen eskaerei erantzun die eta proiektuan inplikaturako instantzia desberdinen koordinazioa bermatu du.

Era berean, kanpoko batzordearen eta ikastetxeetako ordezkarien artean baterako saioak egin dira prestakuntzarako, esperientziak eta materialak trukatzeko, plangintza egiteko, etab.

Baterako saio horiek Ingurugelako egoitza desberdinetan nahiz parte hartu duten ikastetxe bakoitzean egin dira, beraz, horien errealitateak, testuinguruak, beharrak, ardurak eta itxaropenak praktikan ezagutzeko aukera izan da.

Ikasturte bakoitzaren amaieran, ikastetxeek egindako proiektuen memoriak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailetan aurkeztu dituzte eta ingurumen-hezkuntza eta hezkuntzaren berrikuntzaren sustapenerako programen bitartez ikastetxeek sail bietako diru-laguntza jaso dute gastuak ordaindu, materiala erosi eta abarretarako. Ez dute aparteko giza baliabiderik izan, beraz, azpimarratzekoa da parte hartu duten irakasleek adierazitako interes eta ardura, hala talde dinamizatzaileen nola oro har klaustroen kasuan.

3.3.3. Prestakuntza

Ibilbide honen hasieran antzeman ziren beharretariko bat kanpoko ekipoaren, ikastetxe bakoitzeko talde koordinatzaileen eta klaustroen prestakuntza hobetzea izan zen.

Kanpoko ekipoan lan-saioak aprobetxatu ziren hizkuntza komuna sortu, adostasunera iritsi eta proiektuaren indar-ildoak jorrazteko: ingurumen-hezkuntza eta *ikerketa-ekintza*.

Beste alde batetik, proiektua garatu den hiru ikasturteetan, ikastetxe bakoitzeko koordinatzaileei zuzenduta, ikasturte hasieran prestakuntza-saioak egin dira ondoko gaien inguruan:

Lehen ikasturtean (2001eko iraila) prestakuntzak arreta proiektuan oinarriak ezartzeko funtsezkotzat jo ziren gaietan jarri zuen arreta. Hauek izan ziren:

- Partaidetzako hezkuntza.
- *Ikerketa-ekintza*.
- Ingurumen-hezkuntza.
- Taldeen dinamika.

Ikastaro hori proiektuaren kanpoko batzordeko pertsonak eman zuten, Euskal Herriko Unibertsitateko Juan Cruz Ciaurri irakasleaz gain.

Ondoren, klaustro bakoitzak prestakuntza-ikastaro bat jaso zuen ikastetxeetan, Ingurugelako langileek emandakoa (proiektu bakoitzaren koordinatzailea).

Bigarren ikasturtean (2002ko iraila) egiten ari ginena zer, nola eta zertarako egiten ari ginenaren aztarnak emango zizkigun adierazleak bilatzean zetzan. Horretarako, saioak antolatu ziren ondoko edukiekin:

- *Hezkuntzako adierazleak*, Sarramona Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Hezkuntzaren Teoria eta Historiako irakasle eta Kataluniako Ebaluazio Kontseiluaren lehendakari denaren eskutik.
- *Jarrerren garapena eta ebaluazioa*, Miguel Ángel Zabalza Santiagoko Unibertsitateko irakaslearen eskutik.

Hiru ikastetxeek ikasturte horretarako lanerako gai komun gisa «Ingurumen-kalitateko proiektua hezkuntza-komunitate guztiari zabaltzea» aukeratu zuten.

Amaitzeko (2003ko iraila/urria), egiten ari zena hobe ebaluatzeko beharra ikusi zen eta, ondorioz, Barakaldoko Berritzeguneak antolatutako *Ebaluazioari buruzko prestakuntza-jardunaldietan* parte hartzea proposatu zen. Bertan, ikastetxeetako barne *Ebaluazioaren* inguruko bi saio eman zituzten Elena Martín eta Nélida Zaitegik.

Parte hartu zuten ikastetxeetako klaustroek, Ingurugelako aholkulari bakoitzak eskainitako prestakuntzaz gain, beren prestakuntza-saio propioak egin dituzte, batzuetan ikastetxetik kanpoko pertsonak gonbidatuz horiek zuzentzeko.

3.3.4. Prozesua: ekintzan ikertzea

Hurrengo epigrafean ahalik eta zabaldu azalduko ditugu gure eredu metodologikoa (*ikerketa-ekintza*) osatu duten oinarriak. Jarraian, labur bada ere, eredu gure proiektuan nola zehaztu den adieraziko dugu.

Guk genuen *ingurumen-kalitateko eskolaren* ikuspegira hurbiltzeko, nolabait, ekintza-hausnarketako prozesu bat sistematizatu behar genuen. Horretarako, *ikerketak-ekintzak* eredu metodologiko egokia eskaintzen digu.

Ikerketak-ekintza, Ellioten (1986) arabera, beren errealitatea banatutako balio batzuetan oinarrituta aldatu nahi duten taldeek garatutako jarduera da. Hori zen gure egoera.

Ikerketak-ekintza hausnarketako praktika soziala da, non ikertzen den praktikaren eta praktika horren ikerketaren arteko bereizketa egiten den. Ikuspegi horretatik praktika sozialak «ikerketako ekintza» edo «ekintzako teoria» bezala hartzen dira, taldearentzako edo komunitatearentzako aldaketa onuragarriren bat eragiteko duten gaitasunaren arabera aztertu eta baloratzen direnak. Prozesu hori talde baten banatutako arduratik sortzen da. Beraz, lehen pausoa «gaikako ardura» identifikatzea da (López Gorri, 1988). Taldeko kideek beren ardurak adierazten dituzte, gainerakoek pentsatzen dutena entzuten dute eta taldeko proiektu bat hartuz egin daitekeena ikusten saiatzen dira.

Gure kasuan, kanpoko adituen laguntzari uko egin gabe, parte hartu duten ikastetxeek, bakoitzaren proiektuaren bitartez, ardura hori azaldu dute eta «autohausnarketako espirala» deitu den prozesu zikliko bat garatu dute. «Espiraleko itzuli» bakoitza ziklo bat izan da eta bertan, funtsean, lau momentu bereiz daitezke:

- Planteatutako errealitatea hobetzeko *ekintza-plan* bat diseinatzea.
- Plana praktikan jartzea.
- Ekintzaren eraginaren behaketa.
- Egindako prozesuaren inguruko hausnarketa, ziklo berri bat hasiko duen plangintza berri baterako.

Ikerketak-ekintzak, beste alde batetik, erlazio zuzena du parte hartzen duten irakasleen garapen profesionalarekin. Hausnarketa ekintzaren kalitatea hobetzen saiatzen da errealitatea eta garatzen den testuinguru ulertzearen bitartez, testuinguru hori *mikro* nahiz *meso* edo *makro* eskalan ulertuta. Hau da, egiten den *ikerketak-ekintzako* prozesua ez da testuinguru sozial eta politikotik bereizi behar (Ebbutt eta Elliot, 1990). Izan ere, landu ditugun arazoetariko batzuk neurri handi batean testuinguru horren araberrakoak dira.

Laburbilduz, gure kasuan, ikastetxe bakoitzak bere proiektua zuen eta hor zehazten zuen *ingurumen-kalitateko eskolaren* ideia bere testuinguru eta beharretara egokituz. Barneko batzorde batek koordinatu eta dinamizatzen zituen aldi desberdinak, aldiz, kanpoko batzorde bat arduratzen zen aholkularitza eman eta prozesu bakoitzaren jarraipena egiteaz. Era berean, kanpoko batzordearen eta ikastetxe bakoitzeko ordezkarien artean prestakuntza saioak eta esperientziak trukatzeko eta koordinatzeko topaketak egin dira.

Beste alde batetik, Elliotek (1986) «ekintzako ikerketako esplorazio eta kontroleko aldietan frogak» biltzea deitzen dionerako gehien erabilitako teknikak honakoak izan dira: kontakizuna, agiriaren azterketa, kanpoko behatzaile bat ezartzea, zuzeneko komentarioak, galdetegiak, triangelatzea eta memoriak.

‘Ikerketa-ekintza’ eredu metodologiko gisa

4

Ikerketa-ekintza «irakaskuntzako estilo» bezala definitu dezakegu eta horren bitartez irakasleak beren praktikaren ikerle bihurtzen dira modu berezian. Nahiz eta indibidualki egindako *ikerketa-ekintzako* prozesu batean pentsa dezakegun, horren benetako zentzua talde-lana egitea da. Irakasleen taldea da beren ardurak modu solidario eta kooperatiboan argitzen saiatzen dena. Elliottten (1990) arabera, *ikerketa-ekintzaren* bitartez jorra daitezkeen gaiek egoeren maila hirukoitzarekin izango lukete zerikusia:

1. Zer arazo konpondu nahi ditugu?
2. Zer aldaketa egin behar ditugu?
3. Zer erantzun praktiko eman behar dugu?

Beraz, *praktikarekin* erlazionaturiko gaiei konponbidea ematea da eta ez teknikari eta *aditu* jakin batzuek aurrez definituriko gai *teorikoei*. Ikerketa lehenik *praktikoei* (irakasleak) egiteak ez du baztertzen kanpoko beste subjektu batzuek parte hartu ahal izatea, betiere zuzenenean inplikaturako eragileek nahi badute eta beren iritziak osatu eta egiartzatzeko eskatzen badute. Edonola ere, *ikerketa-ekintzak* nagusitasuneko edozein erlazio ukatzen du eta berdintasuna eskatzen du, lankidetzako adiskidetasuna, irakasleei eragiten dieten arazoak konpontzeko.

Irakasleek aurrez adierazitako banaketa hirukoitzean aurreikusitako egoerak aldatzeko hasten dituzten ekintzek aurretik arazo praktikoen ulermen sakona izan behar dute. Gertatzen denaren azalpen arrazionala aurkitu, gertakariak aztertu eta horren zentzuan eta eraketan eragiten duten egoerak zein diren ikusi behar da (horien inguruko ulermen-maila, sineskerak, aurreiritziak, subjektuen intentzioak, etab.). Hausnarketako ulermen horrek bakarrik ahalbidetuko du ondoren aldaketa egokiak ezartzea. Eta hemen beste ohar bat egin behar dugu: gure arazoan eragiten duten gertakarien inguruko ikerketa hori ez da ikerketa tekniko (datuen azterketa estatistikoa, azalpen formalista, enuntziatu eta lege kausalak bilatzea, *unibertsalak*, eraginkortasuna eta errendimendua helburu, *helburuka* lan egitea, etab.), *kasuen azterketa* bat baizik, kualitatiboa, praktikoa eta deliberaziokoa, eta horren ondorioak narrazio bat bezala, *kontakizun* bezala ezarritako deskribapen, azalpen naturalistak dira. Beraz, hezkuntzaren *zientzia kritikoaren* (Carr, 1990) parte da, eskolako eta gizarteko esparruan bideratuta. Guztion artean arduratzen gaituzten gaiak aztertzen ditugu, hausnarketaren eta elkarrizketaren bitartez konponbideak aurkitzen saiatuz. Gertakarien zentzua prozesuetan inplikaturik dauden eta baldintza beretan argudiatu eta iritzia ematen duten eragileen ikuspegiaren oinarritutako interpretazioa da. *ikerketa-ekintzak* aztertzen diren egoerak (iritziak, ondorioak, ematen diren pausoak, hartzen diren erabakiak, etab.) jendeak gizarteko gertakari eta egoerak azaltzeko egunero bizitzan erabili ohi dituen ohiko hizkuntzaren, sen onaren bitartez deskribatzen ditu. *ikerketa-ekintza* ren txostena, taldearen *historia* aldi desberdinetan islatzen duen eta elkarrizketa sakon baten kontakizunak

biltzen dituen agiri idatzia da (Elliott), aldi berean, hausnartu, sentitu, proposatu den guztia berrikusi eta ebaluatzea ahalbidetuz. Parte-hartzaileek bildu eta egindako informazio horrek guztiek adostutako arau etiko batzuk egotea eskatzen du, datuen bilketa, erabilera eta komunikazioa erregulatuko dutenak.

Kemmis eta McTaggartek (1988) *ikerketak-ekintzaren* ideia *autohausnarketako espiral* bezala proposatzen digute. Hau da, beti beste ikerketa batzuei irekita dagoen ikerketa-prozesua da, beraz, horietariko bakoitza, independenteki kontuan hartuta, berezko zentzua duen aldi edo zikloa izateaz gain proposamen berrien iturria eta berrikuspen berrien gelaurrea edo hasiera ere bada. Kasu honetan ere *ikerketak-ekintza* partaidetzako, kolaborazioko ikerketa gisa deskribatzen da, talde baten banatutako ardurak batzuen erantzun gisa sortzen dena. Pertsonak beren ardurak jakinarazten dizkiote elkarri, bestearen pentsamendua aztertzen dute, elkar entzuten dute, iritziak trukutzen dituzte eta horrela sortzen da proiektu komuna. Taldeak eztabaidatu egiten du eta bere kideek beren hobekuntza-estrategiaren arreta zein alorretan jarri behar dutena definitzen duen gai baten alde azaltzen da. Baterako ekintza bat antolatzen dute, adostutakoa praktikan jartzen dute, horren ondorioak behatzen dituzte eta elkarrekin hausnartzen dute, horrela plan berriak kritikoki birformula ditzakete kontzienteki beren ulermena eta beren talde gisako historia eraikitzen duten bitartean.

Kemmis eta McTaggartek ohartarazi digute *ikerketak-ekintza* abiarazten duen gaikako ardurak ez dela gauzak hobetzeko *ad hoc* metodo hutsarekin nahastu behar. Aurkakoa, hezkuntzako ardurak jakin batek arazo-izaera izatea eragiten duten egoeren azterketa kritikoa egin behar du. Gaikako arduraren identifikazio kritikoa taldea *ikerketak-ekintzaren* ezaugarri diren lau momentuetan sartzeko:

1. *Ekintza-plan* bat egitea, gertatzen ari dena hobetzeko argudiatuz ezarritakoa.
2. Ondoriozko irakaskuntzako jarduera, horren bitartez jartzen da praktikan *plana*.
3. Ekintzaren ondorioak behatzea, erreferentzia-testuingurua kontuan hartuz.
4. Ondorio horien inguruko hausnarketa egitea, hala badagokio, txosten kritikoa egin zaion ekintza berri bat antolatzeko, zikloen etengabeko prozesu bat izateko.

Adierazi den moduan, *plana* ez da edozein ekintza-mota, kritikarik gabe proposatua ustez emandakoa baino hobea den bide edo metodo pedagogiko gisa, zailtasunen azterketa kritikotik sortzen den eta ekintzari aurrea hartzen dion proiektu bat baizik. Ezusteko ondorio batzuetara egokitu ahal izateko bezain ireki eta malgua izan beharko luke. Ondorioz, *ekintza* prozesu pedagogiko batzuk, eztabaidatuak eta auzerik ondo pentsatutakoak, kritikoki baloratutako hezkuntza-helburuarekin praktikan jartzea da. Hezkuntzako eta gizarteko aldaketa bilatzeko borondateak orientatu eta zuzentzeko gidatu behar du, hezkuntzako egoera desberdinen zailtasun eta mugaketa politiko nahiz materialak kontuan izanda. Beste alde batetik, estrategikoki eta zuzentasunez ulertu beharko litzateke, irakasleei egoeren aukera zabalean modurik eraginkorrenean jardutea ahalbidetzeko, berriki erreferentzia egin zaion zailtasuneko testuinguruetan barne. *Behaketaren* helburua informazioa biltzea da, ekintzaren ondorioak dokumentatu eta horrela ondoko hausnarketaren oinarri izateko. *Ikerketak-ekintzaren* aurreko momentuetan bezala, bere ezaugarria irekia, ulerkorra eta malgua izatea da, ezustekoa ere erregistratu ahal izateko. Kemmis eta McTaggartek *ikerketak-ekintzako* prozesuetan murgildutako pertsonak gomendatzen diete egunkari bat egitea, plangintzako mailetan sartzeko diren oharak nahiz ekintzaren testuinguruan berez sortzen diren beste gehigarri batzuk bilduko dituen, horien eraginak, egoerak eta mugaketak adieraziz. Azkenik, *hausnarketak* eragiten du taldeak ekintza behaketan egindako erregistro desberdinetatik berreraiki eta egoki baloratzea, bere esanahia bilatuz, antzemandako eragin, arazoak eta abar aurreikusitakoak ziren adieraziz, horren muga eta mugaketak identifikatuz eta horien arazoak azaltzea, posible denaren nahiz lortu nahi denaren horizontea zehaztuz eta berrikusatiko plan berri baten abiapuntua emanez...

Kemmis eta McTaggartek oharrek garrantzia erabakigarria dute *ikerketak-ekintzako* prozesuak bideratzekoan. Nolabait esateko, taldeari jorrazten saiatzen den gaien arazo-maila *probatzeko* eskatzen diete, hezkuntzako eta gizarteko gertakariak nola sortzen diren kritikoki berrikusi araziz eta, azken finean, gure askatasuna eta gure balioak mugatzen dituzten indarrak identifikatu araziz. Ez zerbait aldatu egin behar dela adieraztea bakarrik, zergatik aldatu behar den ere bai. Eta hausnarketako eta taldeko prozesu horre-

tan aldi berean hazten gara profesional eta pertsona gisa. Plangintzak, emandako eta zaharkitutako, gaizki eraturako errealitateak aldatzera orientatutakoak, berriz ere hausnarketan eta konpromisoan murgiltzen gaitu irudimen sortzailearekin: Nola konpondu X arazoa? nola sartu aldaketa hauek edo besteak?... Nola osatu, keinu txikien bitartez, mundu hobea eta bidezkoagoa? Proiektu informatua denez, gure taldeko berezko eta funtsezko izaeraren aldamenean, beste informazio batzuek lagun gaitzaten (antzeko proiektuak, literatura espezializatua, beste pertsona batzuen iritziak, arduratzen gaituzten gaietakoak edo ez...) utz dezakegu. Horrek guztiak eraten du gure ikerketa eta ikerketa-talde gisa dugun historia, egiten ari garen agiri idatziak biltzen duena. *Ekintza-plana* praktikara eraman eta horren eraginean ahal diren datu guztiak behatu eta erregistratzeak hausnarketako aldi berri batera eta gure kontakizuna zabaltzera eramaten gaitu, prozesuaren eta horren ondorioen azterketa biltzen duenera: zein lorpen, gabezia, zailtasun aurkitu ditugu... eta, batez ere, ondorioak ateratzera: zer egin lortutako datuekin? Hau da, zirkulua norberarengandik irekitzea, espirala martxan jartzea.

Badago alderdi bereziki interesgarri bat Kemmis eta McTaggart-en ikuspegiaren behaketa-aldiari dagokiona, gure lanak orientatu ditzakeena. *Teknikai* baino gehiago behaketa beraren edukari egiten dio erreferentzia, zer behatu behar denari. Proposatzen dute horrek arreta funtsezko hiru alderditan jartzea:

1. *Hizkuntzan eta diskurtsoan egondako aldaketak*. Errealitatea ez dago sozialki eta historikoki eratua bakarrik, esan dezakegu linguistikoki ere zehaztua dagoela; hizkuntzak (perlokutiboa) manipulatu egiten du, giza komunikazioa distortsionatua dago (Habermas, 1987). Horregatik dira funtsezkoak maila horretako aldaketak. Hizkuntza ilokutibo (komunikatiboa) batera pasatzea funtsezko hezkuntza-helburua da. Orduan, *ikerketa-ekintzak* orainaldiaren eta iraganaren arteko konpontzen saiatzen den hezkuntza-gaiekin erlazionaturikoaren inguruan zer eta nola esaten duenaren, nork eta nola esaten duenaren inguruko desberdintasunak jorratu beharko ditu.
2. *Jarduera eta praktiketako aldaketak*: nola egiten da hau orain eta nola egiten zen lehen? nork eta nola egiten du? zein da proposaturiko jardueretik motibazioa eta jarrera, inplikaturik kolektibo desberdinetan, zein didaktika- eta metodologia-aldaketak gertatu dira gelan? etab.
3. *Gizarte-harremanen eta antolamenduaren aldaketak*: rol eta zereginetan aldaketak, hezkuntzako harremana, lehiaketa vs. lankidetzeta, lidergoa menderakuntza edo laguntza bezala, aldaketa demokratikoak ikastetxeko antolamendu-egituretan, etab.

Bistakoa denez, gai horien guztien eta antzeko garrantziko beste askoren inguruko hausnarketak prozesu baten «emaitzen» neurria adierazten dute. Blandezek (1996) aldi horretan taldearen lana erraztu dezaketen beste gai batzuk adierazten ditu. Adibidez:

1. *Ekintza-planaren inguruko hausnarketa orokorrak*: nahi genuena lortu al dugu? non geratu gara? zergatik? zein arazo eta zailtasun aurkitu ditugu? ikasle, guraso eta gainerako lankideek ondo hartu al dute plana? zein alderdi mantendu edo aldatu behar dira proiektuan?
2. *Hausnarketa pertsonalak/taldekoak*: nola bizitu ditugu guk aldaketak, indibidualki eta taldekide gisa?; zertan egin dugu aurrera?; nola sentitu gara?; nola baloratzen dugu esperientzia?
3. *Ikerketaren inguruko hausnarketak*: nola baloratzen dugu ikerketaren garapena?; zer ekarpen egin digu?; zer ekarpen egin diezaiekegu guk gure esperientziatik?

Kasu horietan guztietan emandako erantzun informatuak, aukeren espazio ia mugagabea gida simple gisa proposatzen direnak, gure txostenaren eta gure *historiaren* zati ezabaezina izango dira, ikerketaren atalik balioetsuenetariko bat. Argi dago ikerketa guztiek azaldu behar dutela agiri batean; bestela desagertu egiten da, ez da existitzen. Laburbilduz, esan dezakegu kontakizun horrek prozesuaren momentu eta aldi guztien eta horien ondorioen deskribapena bildu beharko lukeela.

Lan horretan L. Stenhouse (1987a, 1987b) eta bere *ikerketa-ekintzen* inguruko planteamenduei aipamen bat egin behar zaie, egileen artean kontzepzioen hondo komun bat dagoen arren interes handiko al-

daketaren bat duelako. Stenhousek giza hezkuntzaren amaiera zeinu morala denaren ideia defendatzen zuen (*praxisa* eta *arte* da) eta helburu bakarrak ordezkatzeko lukeela: «giza eta gizarte-egoeren eta horiek eragiten dituzten arazo eztabaidagarrien ulermena garatzea». Hemen Freirek, zalantzarik gabe, beste zerbait erantsiko zukeen: Ulertu, eta... aldatu!; eta aldatzeko helburu hori gure egileari ere esleitzen zaio nahiz eta ez duen zehazten. Izan ere, Stenhousek ulertu zuen helburu hori lortzeko erabili beharko litzatekeen ekintza pedagogikoak helburu moral horretan parte hartu beharko lukeela bistako kontraesanean ez erortzeko; beraz, ez du edozein prozesuk balio. Horrez gain, hezkuntzako balioa prozesu berean dago (nahiz eta «katedraleak euritik babesteko ere balio duten»); horregatik hautatu behar da hori arretaz. Horrek eraman zuen bere prozedura-printzipio famatuak egitera:

1. Elkarrizketan oinarrituriko eskola eta ez heziketan.
2. Irakaslea froga dokumentalak ematen dizkiena bezala eta ez agintari bezala.
3. Irakaslea ikuspegi desberdinen babesle gisa — eta ez sustatzaile —.
4. Irakaslea ikaskuntzaren kalitatearen eta mailaren arduradun gisa. Eta hemen sortzen da irakaslearen ikerle gisa ikustearen bere ideia. *Ikerketa-ekintzak* irakasleari, kalitate-teknika desberdinak erabiliz (saioen grabaketa, taldeko hausnarketa, ikasleek galdetegi batzuk erantzutea, etab.) aurrez adostutako prozedura-printzipioen inguruko benetako konpromiso-maila egiaztatzeko balio dio. Beraz, curriculum eta etengabe praktikarekin alderatu behar da eta irakaslea da zeregin horren arduraduna.

Ikusi dugun moduan, hemen ñabardura desberdin bat sartzen da aurrez zehaztutako *ikerketa-ekintzako* postulatuekiko. Baina aplikazio praktikoko aukerak kasu honetan ere handiak eta interesgarriak dira.

Hiru urte horietan garatutako ingurumen hezkuntzako proiektuan, taldeek *Elliott* eta *Kemmis-McTaggart* ereduaren alde egin dute, baina beste ikerlari-talde batzuek, ekintzan *Stenhausen* eredu jarraitu ahal izango lukete inolako arazorik gabe. Kasu horretan, aukera bat prozedura-printzipioak zehaztea izango litzateke, aurrez ezarritako helburuei jarraiki, ikerketaren arreta ondoren horiek betetzeko mailan jartzeko, sortutako zailtasunak aztertuz, ateratako ondorioen arabera jarrera berriak proposatuz, etab. Benetan, kalitate-ikerketaren aukerak, eta *ikerketa-ekintzarenak*, ia sortzen diren testuinguru eta taldeak bezain zabalak dira.

Amaitzeko, esango dugu a ez dela eduki jakin batzuk joratzeko metodo edo teknika bat, hezkuntza ulertzeko modu bat baizik, eta horren arabera hezkuntzako eduki garrantzitsu bakarrak metodoa bera dira, pertsonak egiten dutena bakarrik ikasten dutelako (Postman eta Weingartner, 1973). Horren aplikazio kritikoak beste lekuren batean Kemmisen proposaturiko baldintza batzuk existitzea eskatzen du (Kemmis, 1988). Beste batzuen artean (pertsonak ideia eta proiektuak banatzea, hezkuntzaren krisiaren aurreko aukera gisa eskaintzen dituen aldaketak ezartzeaz arduratzea...) *bokazioaren* zentzuari berriz balioa ematea egongo litzateke, berrikuntzara hurbiltzera eramaten baikaitu, finkatuta eta oinarri gutxi duten praktiketatik, hausnarketa faltetatik eta, batzuetan, logikatik aldentuz. Praktika horiek, praktikoa denaren benetako eragile beharrean (bere adierarik garbienean: arrazoiaren, eztabaida, gaiak gizarte- eta etika-zentzuetatik planteatzea), askotan gauzak behin eta berriz errepikatzen dituzten benetako *praktikoi* bihurtzen gaituzte, aktibismoan, merezimendu handikoa baina zentzurik gabean, eta esloganean eroriz. Pertsonen prestakuntza kritikoak eskolan *sinetsi* eta *esana bete* baino zerbait gehiago egitera derrigortzen du, edozein dela ere beren hezkuntza-harremaneko maila eta egoera.

II. IKASTETXEEN PROIEKTUAK



5.1. TESTUINGURUA ETA IBILBIDEA

Lateorro LHI Laudion dago (Araba) eta gaur egun 350 ikasle eta 34 irakasle ditu. Ikastetxe hori ingurumen-hezkuntzako jarduerak egiten 1993-94 ikasturtean hasi zen. Euskarazko irakurketa batetik abiatuta, OHOk 8. mailako orduko ikasleek, galdera bat egin zuten: zer egin dezakegu guk eskolan ingurumenaren alde? Ondoko erantzunak atera ziren: ura, papera, elektrizitatea aurreztu... eta lanean hasi ziren, betiere irakasleen gainbegirapenarekin.

1994ko ekainean Lateorro LHIk egindako jarduerak Arabako Foru Aldundiak deitutako Ingurumena Babesteko Lehiaketara aurkeztu zituen eta lehen saria lortu zuen.

Horrela, Ikastetxeko ingurumen-ekintzek oihartzuna izan zuten eta irakasle gehiago inplikatzeko hasi ziren. Ikastetxeak ingurumen-hezkuntzako proiektuetan parte hartzen jarraitu zuen eta 1995eko ekainean, CENEANen gonbita jaso genuen Valsaina (Segovia) joateko eta bertan Sofia erreginak harrera egin zigun Natura Zaintzeko Europako Urtea zela-eta. Egun berean, *Eraiki beharreko mundu bat dago* bideoa jarri zuten eta bertan gure ikasleek Ikastetxean egindako ingurumen-jarduerak ezagutzera ematen zituen.

95-96 ikasturtean sartu genuen ingurumen-hezkuntza eskola-curriculumean zeharkako lerro gisa Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzako azken mailaraino. 1995. urtean eman zigun Laudio Udalak herrian egindako ingurumen-lanagatik urrezko intsignia.

Aipatutako ikasturte horretatik aurrera, *Jardueren proiektuaz gain, Eskolaz kanpoko ingurumen hezkuntzako ikastetxeetan egonaldiak egiteko proiektua* egiten dugu eta, 99-00 ikasturteaz geroztik, Urdaibaiko Biosferaren Erreserbaren esparruan ibilbideak egiteko proiektua, bai eta Ibaialde kanpainan parte hartu ere, horiek guztiak Lurralde Antolamendua, Etxebizitza eta Ingurumen Saitetik deituak guztiak.

2000. urteko urtarrilaren 11n, orduko Ingurumen sailburu Patxi Ormazabalek gure ikastetxean ADEACen birtartez Europako Ingurumen Konfederazioak emandako Ikurrin Berdea entregatu zigun.

2001-02 ikasturtetik aurrera eta hiru ikasturte jarraietan, ikastetxeak Legorretako (Gipuzkoa) Ugara LHlarekin eta Santurtziko (Bizkaia) Serantes LHlarekin batera *Ingurumen Kalitateko Eskola* deituriko Berrikuntza bakarreko proiektuan parte hartu du.

Aipatu proiektua egiteko Ingurugelako langileen lankidetzak izan dugu, aholkularitza didaktikoa eta materialak eskaini dizkigute. Era berean, Euskal Herriko Unibertsitateko espezialisten argibideak ere jaso ditugu eta hausnarketako eta *ikerketa-ekintzako* prozesuak dinamizatu eta sistematizatu dituzte. Erakunde horiez gain ondoko estamentuak egon dira inplikaturik: ikasleak eta klaustrako irakasleak, Jesuri guraso-elkarteak eta Laudio udala.

5.2. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Erreferentzia gisa *Ingurumen Kalitateko Eskolarako Proiektua* hartuz, eta ebaluazioa beti eztabaidagarria eta prozesukoa dela jakinda, hori egiterakoan batez ere hasierako proiektuan planteatutako helburuak izango ditugu kontuan, ezarri ziren aldaketak egiaztatu eta *ekintza planetik* ondorioztatutako aipaturiko aldaketen justifikazioa zehaztea.

Lehen helburua: Curriculum eta Hezkuntza Proiektuko aldaketa aztertzea

Proiektu horretan lanean hasteko klaustro guztia Ingurugelako ordezkari batek emandako ingurumen-hezkuntzako ikastaro batera joan zen eta bertan komunean jarri genituen gure ingurumen-ardurak, zein abiapuntutan ginen jakin eta proiektuaren hasierako diagnostiko bat egiteko ingurumen-egoera orokorraren eta bereziki gure eskolako ingurumen-testuinguruaren azterketa eginez.

Lanean jardun dugun hiru urte horietan gure ingurumena ulertzeko modua aldatu egin da, batez ere hasierako prestakuntzako ikastaroan adierazitako adierak eta gai horren inguruan *ikerketa-ekintzako* prozesu baten bitartez hiru ikasturtetan lanean jardun ondoren adierazitakoak alderatzen baditugu.

Jarduera jakinak egitetik, momentu jakin batzuetan egiten zirenak, ingurumen hezkuntza unitate didaktiko desberdinetan sartuta izatera pasatu gara, ingurumen-jarduerak sistematizatuz, hau da, gauza konkretuez hitz egitetik (geletan errezelak jartzea kasu) gelako gure eguneroko zereginean ingurumen hezkuntza presente edukiz modu orokorrean jardutera pasatu gara, gure ikastetxearen hezkuntza-kalitatea hobetu eta gure ikasleek transmititzen ari gatzaizkien ingurumen-balioak barnera ditzaten.

Ez da gure hizkuntza bakarrik aldatu, ikasleena ere aldatu da, aurrezkoa, eskola-materialaren erabilera egokia, kontsumoaren murrizpena eta antzeko beste hitz batzuek erabiltzera ohitu baitira.

Familien hizkuntzan ere aldaketa antzeman dugu, ikasleek hitz egiterakoan aipatu ditugun hitz horiek ere gurasoek, aitona-amonek ere erabiltzen baitituzte, beren seme-alaba, biloben bitartez edo beren etxeetara iristen diren lan (edo triptiko) desberdinen bitartez iritsi zaizkie.

Eskola-jarduerako aldaketei dagokienez esan dezakegu ikasleekin erabili beharreko material guztia, testu-liburuak barne, sakon aztertzen dela ingurumena errespeta dezaten.

Ikasleen ezagutzak ere ugaritu egin dira eta orain ondokoetarako gai dira:

- Paper-kontsumoaren, elektrizitate-gastuaren eta uraren inguruko datuen bilketa sistematikoko lana egitea.
- Grafikoak egitea.
- Aldaketak behatu eta antzematea.
- Grafikoak interpretatzea.
- Bere gelakideei azalpenak egitea.
- Hobetzeko proposamenak egitea.

Baina ikasleen ingurumen-ezagutza handitzeak ez du eguneroko gelako lana bakarrik lagundu, ingurumen-ikuspegitik baloratzen diren eta familien aldetik harrera oso ona duten kontsumo-mintegietan, jarduera osagarrietan eta irteerak, egonaldiak edo erakusketak bezalako eskolaz kanpoko jardueretako parte-hartzea ere bai baizik.

Harrera onena duten edo izan duten jardueren artean eskola-barrutiaren garbiketa eta hondakin-materialekin egindako lanen erakusketa aipa ditzakegu; azken horretan *ikasleen %76k* hartu zuen parte eta *139* izan ziren erakutsitako lanak eta honela banatzen ziren:

LH-ko PARTAIDETZA	AURKEZTUTAKO LANAK
1. MAILA	22
2. MAILA	27
2. ZIKLOA	46
3. ZIKLOA	44
GUZTIZKOA	139

Gure ikasleek Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak sustatutako hezkuntza-programa baten barneko publizitate-iragarki batean parte hartu eta kolaboratu zuela ere aipatu nahi dugu.

Bigarren helburua: ikastetxeko ingurumen-giroa hobetu den jakitea

Helburu hau aztertzen hasteko, ñabartu behar da Ikastetxeak *ingurumen kalitateko eskolaren* berrikuntza proiektuan parte hartzen zuenaren ondorioz asteen bi ordu izan ditugula horren inguruan lan egiteko eta *ekintza-plana* ondoko alderdiekiko ezarri da:

- Klaustroko irakasleak.
- Ikasleak.
- Familiak.

Lehenik eta behin, irakasleen klaustro guztiak hartu genuen parte *taldeen dinamikako* ikastaro batean, EHUko irakasle batek eman zuenean. Ikastaro horren helburua taldean mezuen transmisioa adostea zen hartzailearengana ahalik eta zehaztasun handienarekin irits daitezkeen (ikasleak, gurasoak, zikloko kideak, solaskideak...), mezua indargabetuko luketen beharrezkoak ez diren adibideak saihestuz; ikusten dugu erabilitako hizkuntzaren eta kalitatea eta ingurumena hitzen ulermena aldatu egin dela.

Bigarren zatian, bilerak moderatzeko modua eta parte hartuko dugun edozein bilera emaitzarik onenak lortzeko nola prestatu behar dena landu zen.

Lan-saio horiek klaustroko irakasle guztiak positiboki baloratu zituzten eta, alde batetik, gure eguneroko lanaren inguruan hausnartzeko balio izan ziguten, transmititzen ditugun mezuetan elkarrizketa eta zintotasuna egotea nahi badugu komunikazio argi eta zehatza egon behar duela adieraziz. Beste alde batetik, denik eta informalea izanda ere emaitzak izan ditzan edozein bilera ondo antolatzeak duen garrantzia eta eraginkortasuna barneratzeko ere balio izan zigun.

Lehen aldi hori amaituta, klaustroko talde desberdinen barne-funtzionamendua ezarri zen komunikazioa partaidetzakoagoa eta emankorra egiteko:

Proiektuaren talde koordinatzailea, hezkuntza-ziklo bakoitzeko irakasle batek, irakasle espezifiko batek eta ikastetxeko zuzendariak osatutakoa, asteen bi orduz bildu da asteazkenetan 15:00etatik 17:00etara. Talde koordinatzaile hori izan da proiektuaren motorra eta bertatik atera dira aztertu diren eta ziklo desberdinetan eztabaidatu diren proposamen gehienak, ondoren klaustroan komentatu eta Eskola Kontseiluan jartzeko, azkenean han onar zitezkeen.

Ez dugu Ingurumen Batzordea ahaztu behar; bertan proiektuko talde koordinatzailea osatzen duten kideez gain honakoak ere badaude:

- Bi guraso, bata Eskola Kontseilukoa eta bestea Jesuri guraso elkartekoa.
- Lau ikasle, Lehen Hezkuntzako 5. mailako bi eta 6. mailako bi.
- Atezaina.

Batzorde hori hiruhilero biltzen da egin diren edo egingo diren ingurumen-jarduerak aztertu, baloratu eta proposatzeko. Bilera horiek giro lasaian egiten dira eta guraso nahiz ikasleek batzordeko kide izateaz harro daudela adierazten dute.

Antolamenduko aldaketa horrek harreman pertsonalak hobetzera eraman gaitu, lan-giro ona sortuz, lankidetzeta eta lan-banaketa sustatuz eta partaidetzako eskola lortuz.

Ikasleekin egiteko *ekintza-planari* dagokionez, ikusten dugu aldaketak egon direla jarduera eta praktike-tan, 6. mailako ikasleek beraiek asmatutako ipuin baten bitartez (ondoren bideoa) beheragoko mailakoei hondakinen sailkapenaren inguruko azalpenak egitea bezalako jarduera berritzaileak egin baitira.

Ikasleek gurasoekin batera egiteko etxera eraman zuten energia aurrezteari buruzko lana *oso positiboki baloratzen dugu partaidetza altua izan zuelako, eslogan desberdinak eta pertsonalizatuak sortuz*. Nahiz eta gehienek argiari egiten zioten erreferentzia (energiarekin erlazionaturiko beste alderdi batzuk alde batera utziz). *Lanak ondo aurkeztu zirela, jarduera oso erakargarria izan zela adierazi zutela eta beren aita/amarekin edo beste senitartekoren batekin batera oso gustura egin zutela* ere azpimarratu behar da.

Ikasleek gauzatu ahal izateko hautatu egin behar diren proposamen ugari egiten dituztela ere aipatu nahi dugu.

Familielikiko *ekintza planaren* barruan, 2002-03 ikasturteari dagokionez Ikastetxeko planean *jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak Ingurumen-proiektuetan sartzeko* helburua sartu zen. Helburu hori Jesuri GEko batzordearekin komentatu zen, hori baita ikasturtearen hasieran eskolaz kanpoko jarduerak antolatzearen arduradun, eta atseginez hartu zuten, Ikastetxeko antolamenduan sartuta zeudela eta aktiboki parte hartzen zutela ikusiz.

Helburu horren ebaluazioa amaitzeko gure Eskolan erabiltzen den paper guztia *paper birziklatua* dela adierazi nahi dugu eta irakasleei beti esaten zaie fotokopiak bi aldeetatik egin behar direla. Aurrezki orokorrera eramaten duten ingurumen-praktika onak eta eskola-materialaren erabilera egokia ere azpimarratzen ditugu, materiala urte batetik bestera gorde eta erabiltzen da.

Hirugarren helburua: 'ikerketak-ekintza metodologia' aztertzea

Proiektuan erabilitako metodologiari dagokionez, esan dezakegu aktiboa eta partaidetzakoa izan dela, proiektuaren talde koordinatzailearen proposamenak bilduz, zikloi jakinaraziz aztertu eta eztabaida zitezen, ondorengo klausuro batean onartzeko, ondoren Ingurumen Batzordeari proposatzeko. Horrela, praktikan jartzeko garaian eskola-komunitate guztia jakinaren gainean egon da, harrera ona izan zezaten saiatuz. Horrez gain, egunero bilera bakoitza amaitutakoan, hitz egindako guztia idatziz jasotzen zen hurrengo egunean irakurri eta abiapuntu bat izateko (ohar horiek baliozkoak izan ziren hiruhileko memoria egiteko, ondoren azken memoria hau egiteko balio izan diguna).

Zehazki proiektuan erabilitako *ikerketak-ekintza metodologia* jartzen badugu arreta, esango dugu jada bagenuela ohitura sortzen zen arazo batean aurrean *antzeraman, aztertu eta arintzeko helburuarekin ekintza-plan bat proposatzeko ohitura, ekintza zuzentzaileak jartzen saiatuz*. Kalitate-eskiliburu guztietan proposatutako metodo zientifiko horretatik *ekintza-behaketa-hausnarketa aldira* pasatzea kostatu zitzaigun eta proiektuaren talde koordinatzailearen barnean hausnarketa bat egin zen *ikerketak-ekintza*ren esanahia komentatuz. Hasiera batean metodologia hori gauzatzeko aurkitu genuen oztopo nagusietariko bat zen etengabeko hausnarketa-eriketeta bat eskatzen duela eta guztiaren inguruan hausnartzea beharrezkoa ez denaren ondoriora iritsi ginen, bestela hausnartzeagatik hausnartuko baikenuke.

Ikerketa-ekintzako metodologiak ekartzen duenaren inguruan hitz eginez eta hausnartuz ikusi genuen diskurtsoa aldatu egin zela, eta oso garrantzitsua iruditu zitzaigun taldeko lanari, elkarrizketari eta, ondorioz, hausnarketari ematen ari ginen balioa.

Momentuz, gure eskolan *ikerketa-ekintza* metodologia proiektuaren talde koordinatzailearen barnean geratu da, eta elkarrizketan, ikerketan eta hausnarketan oinarritutako metodologia hori irakasle nahiz ikasleei helarazten saiatu ginen.

Talde koordinatzaileari dagokionez, esperientziatik aurrera ikusi ditugun aldaketak izan dira eskola osotasunean ikustea lortu dugula, ideiak taldeko elkarrizketa eta hausnarketaren bitartez banatzen ikasi dugula praktikan jarri ahal izateko. Batzuetan zailtasunekin topo egiten dugu, bereziki Ikastetxean irakasleak aldatzetik ondorioztaturikoak (nahiz eta Ikastetxeko organigrama ezarrita dagoen eta irakasle paraleloek eta gainerako zikloak informazioa ematen duten).

Gizarte-harremanen eta antolamendu-moduen aldaketei dagokienez, esan behar da ingurumen hezkuntzak irakasle, guraso, udalerraren... arteko harreman pertsonalak hobetzen lagundu duela. Zehazki, ikastetxea demokratizatu du, elkarrizketara, tolerantziara eta taldeko lanera eramaten duten jarrera eta jokabideak lantzen ditugulako.

Amaitzeko, balorazio hau idazterakoan hasieran proposaturiko helburuen inguruan hausnartu dugula esan behar dugu, orain ebaluatzen ari garenen inguruan, eta ikusten dugu aldaketa nabarmenak egon direla, batez ere, lan egiteko moduan, egoerak eta arazoak aztertuz eta ekintza zuzentzaileak aurkitzeko hausnartuz. Pentsatzen dugu hori guztia *ikerketa-ekintza* metodologiaren ondorio dela.

Laugarren helburua: ingurune komunitateko komunikazioa eta txertatzea hobetu den egiaztatzea

2002-03 ikasturtean Ugara LHIn egin zen lehen bileran hiru ikastetxeek adierazle komun gisa *Ingurumen-kalitateko proiektua hezkuntza-komunitate guztiari irekitzea* aukeratu zuten. Era berean, ondoko helburuak ere definitu ziren:

- Ingurumenaren aldeko jarrerak sustatzea eskola-komunitateko osagai guztietan (ikasleak, irakasleak eta familiak).
- Gure udalerriko udalarekin harremana izan eta hobetzea.
- Eskolako Agenda 21 prestatzeko prozesua hastea.

Aukeratutako adierazlea ikasturte bereko ikastetxeko plan orokorraren helburu bezala sartu genuen eta aipaturiko adierazlea helburu horrekin lotuz, *ekintza-planean, hiruhilero familiei Ikastetxean egiten diren ingurumen-ekintzen inguruko informazioa igortzea* erabaki zen. Hori euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako triptiko baten bitartez egin zen; hautatutako gaiaren inguruko marrazki bat eta lema, informazio labur eta zehatza eta aholkuak edo jarraitu beharreko jarrerak zituen hirugarren zati bat zituen. Hori egiteko ardura Ingurumen Batzordearena izan zen.

Ondoren familiei inkesta bat pasatu zitzaizen ingurumen-praktika onen inguruko aipatutako triptikoa jasotzea nola ikusten zuten baloratzeko. Datuak honakoak dira:

Ikastetxearen sarreretan jarritako kaxetan utzitako 103 inkesta bildu ziren (%33,3) eta triptikoa honela baloratzen zuten:

Oso interesgarria	Interesgarria	Ez da interesgarria	Informazio nahikoa
94,49%	88%	0,91%	90,82%

Laudioko udalak bere diskurtsoa ere aldatu duela ikusi dugu, hiru urte hauetan Tokiko Agenda 21 egin du eta bertan gure eskolak partaidetza aktiboa izan zuen. Azken urte honetan hiritarrei *ekintza planaren* inguruko informazioa bidaltzen die, bai eta ingurumen-aholkuak ere. Legegintzaldi berri horretan Ingurumen zinegotzigo bat dago, aurrekontu propioa duena eta horrekin harreman atsegina dugu.

Gurasoen aldetik jarrera-aldaketa ikusi dugu, proiektuan sartuta baitaude, garapen iraunkorra laguntzen duten proposamenak egiten dituzten orain. Horien artean daude, adibidez, ikastetxetik edo guraso elkartetik bidalitako agiri edo zirkular guztien komunikatu bakarra bidaltzea familiako kopiak saihesteko eta aurrezteak laguntzeko (proposamen hori 2002ko urriaren 22an hasi zen praktikan jartzen).

Amaitzeko esango dugu proiektu hori gauzatzekoan Ikastetxetik kanpoko baliabideak erabili ditugula, Ingurugelaren aholkularitza eta EHUko irakasleak kasu, hiruhilero bilera bat eginez lanean jardun dugun hiru urteetan zehar eta aldizka beharra edo zalantzak izan ditugunean.

Jesús Obrero-Lateorro Ingurumen Foroan parte hartzen jarraitu dugu gure lanak jakinaraziz eta gure ingurumen gaietako zalantza eta lorpenak komunean jarritz.

Ikasleei dagokienez, irteera edo jarduera osagarri guztietan ingurumen-esparruan proposatutako helburu guztiak sartzen dira.

Guraso elkarteak ere aktiboki parte hartzen du, eskolak proposaturiko ingurumen-irizpideak kontuan izanik: papera aurrezteak, fotokopiak bi aldeetatik egitea, ikasleen artean elikagai osasuntsuak banatzea laguntza ematen duten festetan: Olentzero, Santa Ageda, inauteriak, ikasturte-bukaera, etab.

6.1. HASTAPENAK

«Serantes, ingurumen-kalitateko ikastetxea, etorkizuneko proiektua da». Hori idatzi genuen duela hiru ikasturte ^{xxi}. mendean ingurumen-hezkuntzaren eskutik sartzearen aldeko apustua egin genuenean, etorkizun iraunkorrerako lan egitearen alde.

Eskola ekologikoa sortu nahi genuen, ingurumen-kalitateko ikastetxe bat. Estrategia horretan gure ikasleak ekintzako eragile gisa hezteko aukera ona ikusten genuen. Beren ingurunearekin konprometitutako pertsonak, estilo-aldaketaren agintea hartzeko gai izango zirenak, izatearen esentzia ahaztuta kontsumoaren eta edukitzearen gizarte bihurtu den gizarte industrial honen aldaketarena.

Aldaketako eragileak —E. Frommekin baieztatuz— «berritzea, haztea, ibiltzea, maitatzea, ego isolatuaren kartzelatik ezagutzera ematea, aktiboki interesatua egotea, ematea» suposatzen zuen. Aukerak eman, edukitzeko modua murrizten ikasteko espazioak eskaini eta norberaren izaera handitu behar genituen.

Ilusio batera animatzen gintuen: *ingurumen-kalitateko eskola* horren eraikuntzan pausoak ematea, non gure ikasleek, aldaketako eragileek, gauzen, sentsazioen eta giza kulturaren balioa hartzen jakingo zuten, ez kuantifikazioagatik (prezioa) berez duten balioagatik baizik. Hori ez zen eta ez da erraza. Bira bat ematea suposatzen du, beste bira bat ematea suposatzen du. Beste begi batzuekin begiratzea. Gure planeta den Lurrarekin bat eginda sentitzea eta bizirik eta Biosfera deitzen duguna osatzen dugun gainerako izaki bizidunekin eta bizidunak ez direnekin hainbat lotura dituen sarean erlazionatuta gaudela jakitea.

Gure ikastetxearen ingurumen-ibilbide luze horri ideia-gorputz bat eman behar zitzaion, gure eskola-estiloaren oinarri izango zen eduki filosofikoa. Jokaerak, pertsonak, gure ingurunean egon eta izateko moduak definitu eta markatzen dituen estilo hori falta zen. Hori da proiektuaren jatorria: *ingurumen-kalitateko Ikastetxe* gisa sentitu, ezagutu eta jardutearen koherentzia bilatzea.

Alderdi horretan kontuan izan beharreko hainbat elementu sartzen ziren jokoan:

1. Proiektuari aurre egiterakoan adostu ziren eta oinarrian, bere ibilbide guztiaren oinarrian egon behar zuten konpromisoak; hau da, baterako erantzukizuna eta zereginen banaketa; ildo horretan irakasleak ez gehiegi kargatzeko eta neurriz gaindiko ahaleginak eragiten duen kostua kentzeko estrategiak lortu behar genituen.

2. Poliki egin behar genuen aurrera, egiten duguna asimilatuz, pauso bakoitza adostuz, kontzeptu bakoitza; gure informaziotik prestakuntzara; azterketa pertsonaletik adostasun kolektibora.
3. Horrek guztiak aurreranzko pausorik ez zegoela ez suposatzea. Bidea egiten ari ginela sumatu behar zen, mugitzen ari ginela; egiten eta sortzen ari ginela.
4. Aldaketari, prestakuntzari irekita; ezagutzen ez duguna aurkitzeari, elkarriketan eta entzutean parte hartzeari; talde txikian eta talde handian lan egiteari. Gure zereginari aurre egiteko modu berrietara irekita.

Honela egin genion aurre lehen erronkari: proiektua imajinatu eta antolamendu simple eta eraginkorra lortzea.

6.2. LANERA

Guztia Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2001-2002 ikasturtean berrikuntzako proiektuetarako deialdiari lotuta etorri zen. Klaustroa lanean hasi zen hausnarketa bizi eta zintzoarekin, beldurrak eta indarrak, ziurgabetasunak eta aukerak eztabaidan jarri. Horrela eman genion oniritzia eta prozesu guztia funtzionamenduan jarri zen. Hortik OOGra pasatu ginen, gurasoen batzarrean aurkeztu zen eta berriz ere klaustrora itzuli zen proiektua zehazteko.

Hurrengo pausoa proiektuaren talde animatzailea eta koordinatzailea aukeratzea zen eta gai horrek ez zuen arazo gehiegi eragin; lau pertsonak osatu zuten: Lehen Hezkuntzako bat, Haur Hezkuntzako bat, zuzendaritzako bat eta koordinatzailea.

Beste pauso bat, talde dinamizatzailearen eskutik emandakoa, lanaren hasierako plana aurkeztea izan zen, eta ondoren bete-betean proiektuan sartu ginen.

Finantza-baliabideen mobilizazioa aipatutako sailek eman ziguten eta alderdi teknikoak, hau da, hausnarketa-, ikerketa- eta prestakuntza-prozesuaren inguruko aholkularitza metodologiko eta pedagogikoa EHUK eta Ingurugelak eman zuten. Giza baliabideak, hezkuntzako komunitatea, prest eta animatuta zegoen. Mugitzeko estrategiak sortzea falta zitzaigun, hiru mailetan ibiltzen hastekoa: irakasleak, ikasleak eta gurasoak. Erakundeena beranduago etorriko zen.

Norberaren eta taldearen aurreko ideietatik nahi genuen ikastetxeari forma eman genion. Horregatik lehen saioak, zer gertatzen zenaren inguruko ikusmin eta berriaren ilusio handiarekin, hausnarketakoak izan ziren, asko hitz egin eta parte hartzekoak; etorkizuna ikustekoak, gure izaera imajinatzekoak; ideiez, hezkuntza begiratzeko modu berriez betetako lan-saioak izan ziren. XXI. mendeko hezkuntzari buruzko agiriak landu ziren; ingurumen-hezkuntzan garaturikoak; Ingurumenaren kontzeptuari buruzkoak; eskubide eta betebeharrak buruzkoak; gizarte-ekumenari buruzkoak; adierazleak buruzkoak; Eskolako Agenda 21ari buruzkoak, prestakuntzako beste agiri askoren artean.

Horrela, geneukanetik eraikiz, berria zena finkatzen joan ginen. Beti kontuan izanez aldaketa-prozesuarekiko gure interesa beti pertsonengan egon dela; Richard Baerrek esaten duen moduan, «ingurumeneko borrokako gerra-tokia gizakiaren arima dela aitortzen ez dugun arte arazoaren erdigunea erasotzea lortuko ez dugunaren» jakitun izanik. Horregatik gure jarrera eta jokabideen aldaketako ahalegina, pertsonak aldatzen ez bada, bere ingurua eta beren eragingunea edo transferentzia gutxi aldatuko delako. Horregatik egiten dugu azterketa pertsonalaren eta, ondoren, kolektiboaren alde, hazi, aberastu eta pertsona hobeak egiten gaituelako, horrela giza talde kohesiatua eta ingurumenarekin konprometitutakoa osatzeko.

Deialdiak ingurunearekin errespetuz, dibertsitatea eta tokiko ekosistemak baloratuz erlazionatzen zen ingurumen kalitateko ikastetxe batengatik lan egitea proposatzen zigun; baliabide didaktiko gisa gizarte- eta natura-ingurua zuena; baliabideak neurritz eta modu eraginkorrean kontsumitzen dituen eta kalitatearen kudeaketa ikastetxean integratzen duena. Era berean, eskolaren eta komunitatearen ar-

teko desadostasunak desagerrarazi nahi zituen; komunitatea inplikatu eta transmititzen ziren balioak berrikusi. Gai komunetan elkarrizketa, erabakiak hartzea, adostasuna eta partaidetza erabiltzea lan-metodo gisa. Prestakuntzako eta hezkuntzaren berrikuntzako prozesu jarraituan inplikatzeko. Curriculum berrikusiz eta *ikerketak-ekintza* hobetzeko erabiliz.

Proposamen horrek ondoko aldaketak lortu nahi zituen: ikastetxeko ingurumen-egoera hobetzea; hezkuntza-prozesuak hobetzea; pertsonak hobetzea; ikastetxearen irudia eta onarpen soziala hobetzea; erabakiak batera hartzea hobetzea (elkarrizketa eta adostasuna); kudeaketan gure gai komunetako erantzukizuna hartuz eta ikastetxeko kide izatearen sentimendua indartuz. Ikastetxe batentzako itzaropen handiak ziren eta, ondorioz, ez ziren txikiagoak izan gure ahalegina eta ardura.

Jarraituz horiek kontuan hartuz, eta hasierako konpromisoak ahaztu gabe, gure proiektua hiru *helburu orokor* hauek planteatuz diseinatu genuen:

1. Gure ikasleak beren natura- eta gizarte-inguruan sartutako, narriadurarekin kritikoak eta *garapen iraunkorarekin* konprometitutako pertsonak egiteko oinarriak sortu eta baliabideak eskaintzea.
2. Ingurumen-kalitatearen kudeaketa eskolako bizitzaren garapenean integratzea.
3. Maila pertsonalean hobetzea hausnarketatik, prestakuntzatik eta natura eta gizarte errespetatzen duen eta horiekiko demokratikoa den kultura berri baten konpromisotik.

Eta helburu horiek beti kontuan izanda egituratu genuen proiektua *sei modulutan*, gure ideia sostengatzen duten eta horri bizitza ematen dioten sei oinarriak direnatan.

- a) *Oinarri kontzeptualak*, horiek izan dira ondorengo egitura guztiaren oinarri. Proiektuaren filosofia da. Gure pentsatzeko, sentitzeko eta izateko modua eusten duten eta horien oinarri diren agiri, printzipio eta ideiak dira. Horrekin *ingurumen-kalitateko ikastetxearen*, gure haur eta lehen hezkuntzako Serantes ikastetxearen izaera deskribatu nahi genuen, gure prestakuntzaren ardatz nagusia.
- b) *Ingurumen-kultura*. Modulu horrek ekintza, jokabide eta lanerako jarrerari erantzun behar zien; ageriko zatiari, gelako zereginei, talde handiko eta familietako jarduerari. Gure prestakuntzaren beste elementu garrantzitsua (metodologiak, jarduera komunak, data esanguratsuak...).
- c) *Komunikazioa*. Eskola-komunitatera irekitzeak, lehenik, gure inguruarekin loturak ezartzea suposatzen zuen. Erakundeekin (Udala), familiekin (prestakuntza, lankidetzak, proiektuko inplikazioa, informazio-buletinak) joan-etorriko loturak sortzea. Eta eskola-komunitatearekin formatu handiko argitalpen bat eta gure interneteko presentzia.
- d) *Prestakuntza*. Pertsona eta talde gisa hobetzea lortu nahi zen. Ingurumen- eta hezkuntza-alderdian kultura-oinarri bat sortzea. Eztatanda, kritika, kontzeptu-, metodologia-, prozedura eta jarrera-mailan proposamenak eragin nahi genituen. Gure ingurumen-prestakuntza egin eta ingurumen-hezkuntzako estrategiak lortzeko zubia izan da.
- e) *Antolamendua eta kudeaketa*. Ingurumen-kalitatea esparru guztietara zabaltzea nahi genuen eta horregatik sartzen ziren jokoan egiturak; horretarako sortu genuen ingurumen-batzordea eta gure kontsumo- eta kudeaketa-politikan baterako erantzukizuna hartu genuen.
- f) *Ebaluazioa*, hausnarketa eta hobekuntzarako bezala ulertuta. Ireki diren ebaluazio-prozesu guztiak, hala jarduera jakinenak nahiz garatutakoenak, edo hobetzeko, eraikitzeko izaera presente izan dutenak.

Proiektuak bere eragin-eremua ikastetxera (klastroa eta ikasleak), eskola-komunitatera (famiak eta gertueneko ingurua) eta udalerrira (Eskolako Agenda 21) zabaltzen zuen.

Eta errealitate bezala finkatzeko, bilatzen dugun *ingurumen-kalitateko ikastetxea* hiru aldi edo zati desberdinetan antolatzen genuen, elkarren artean oso lotuak zeudenak: azterketa eta hausnarketa gailentzen zen lehen zatia; gure ikastetxe eta inguruko azterketa eta ekoauditoreko lana, antolamendua eta estilok lortu nahi genuen ikastetxeari forma emango zioten oinarriko lerroak deskribatzeko.

Bigarren zatian estilo hori jarraituko zuten eta bizitza eta sendotasuna emango zioten ekintza-sistema fin-
katu zen: Ingurumeneko Eskola Karta, Lurraren Kontratua, Eskolako Agenda 21, gelako zereginak, ekoegu-
tegia, hau da, ingurumen-kudeaketa ikastetxean aplikatzea.

Ebaluatu eta Ikastetxearen Heziketa Proiektuan sartzeko aldia zen hirugarrena, eta ondorioz, Ikastetxearen
Ikasketa Proiektuan sartzekoa. Bestela esanda, etorkizuneko hirugarren aldia, errealitate berri bat sortu
zelako, estilo berri bat, eskola berri bat.

6.3. EGINDAKO BIDEA

2001-02 ikasturtetik asko izan dira eman ditugun pausoak eta horregatik egindako bidea luzea izan da. Bi-
dean zehar izan ditugun kanpoko aintzatespenek baieztatu digute ondo ari ginela.

Begirada atzera botaz lan asko, ahalegina eta ebaluazio-moduluan diseinatu, hobetu eta berretsitako le-
hen bost moduluetan emandako pauso handiak aipa ditzakegu. Proiektuaren itzaletan sortutako alderdi,
jarduera edo agiri esanguratsu garrantzitsuenen artean honakoak aipa ditzakegu:

- a) Gure aurrerapenean gakoak izan diren oinarriei dagokionez, *ingurumen-kalitateko ikastetxearen* defini-
zioa adostu da, guk gure ikastetxearentzat nahi duguna; definitutakoaren arabera, Ingurumeneko Es-
kola Karta egin zen, ikastetxeko gure ekintzak markatzen dituzten eta kalitate-adierazleak sortzen di-
tuzten printzipioen multzoa da; ondoren Eskolako Agenda 21en birdefinitu ziren kalitate-adierazleak;
eta Lurraren Kontratua, guraso, ikasle eta irakasleek adostutako jokoaren dekalogo.
- b) Ingurumen-Kulturako moduluan lau motako ekintza-osagarriak ezarri dira:
 1. Ikasleek ikasturtean zehar ohitura bezala betetzeko hartzen dituzten erantzukizunak diren gelako
zereginak. Eskolako curriculumeko parte izatera pasatzen diren elementuak dira: gelan sortzen di-
ren hondakinak sailkatu eta birziklatzea; argiaren erabilera eko-eraginkorra; landareak eta anima-
liak zaintzea baldin badaude; patruila berdean parte hartzea, kalitatea zaintzeko modua da parame-
tro sinpleekin; txoko naturala, natura protagonista den gunea, albiste, lan eta argitalpenetako
partaidetzarekin...
 2. Beste alderdi bat egiten joan diren ingurumen-mintegiak dira: zarataren mintegiak; auzoan lan egi-
teko; uraren inguruan; eskolako inguru eta barrutian; sukaldaritza eta osasunekoa; berreskuratu-
tako materialekin egindako jostailuak; eskola-baratze edo -berotegiko mintegia; landareak identifi-
katzeko mintegia.
 3. Ekintzen hirugarren mota pixkanaka definitu dugun eko-egutegiari lotuta joan da. Ospakizunen
(egun seinalatuak, adibidez, Lurraren eguna, uraren eguna, liburuaren eguna, urtaroak, ikastetxeko
festa) eta elkarbizitza eta ingurumeneko jokaera eta jarreraren inguruko lanaren egutegia da. Mende
honetako ongi hezitako pertsona baten jarrerak finkatzeko balioetako lana.
 4. Azkenik, eta kalitate-adierazleei lotuta, maila bakoitzak gai berezi eta zehatz bat proposatu du xe-
hetasunez eta sakonki lantzeko. Horrek mintegiak, tutoretzak eta gelako curriculumeko makina bat
lan eragin ditu ondoko gaien inguruan: zarata, auzoa, eskubideak eta betebeharrak.

Aipamen berezia egin behar zaio gure ingurumen-kulturan irakaskuntza-ikaskuntzako estrategia ba-
tzuk oinarritzat ditugunari: ingurunea baliabide didaktiko gisa erabiltzea; taldeko lana ezinbesteko
gisa gizarte-eskumenen prozesuetan; landa-lana, irteerak gure garapen pertsonalaren elementu ga-
rrantzitsu gisa; gelako aurreko lana, ekintza eta ondorengo lana duen metodologia, eta gizarte-inguru-
men gaiak erabiltzea diziplinartekotasunerako motor gisa.

- c) *Komunikazioa* atalari dagokionez, gure ardura berezia izan da. Taula Berdea sortu dugu, ikasleei, ira-
kasleei eta familiei irekitako partaidetzako horma-irudi handi bat. Era berean, web-orri bat ere jarri
dugu abian, erreforma sakona jasaten ari dena; familientzako prestakuntza eta informazioko buletin
bat; aldizkari txiki bat, orain horma-irudia dena, irakasleentzako informazioarekin, eta *Pintzeladak* al-
dizkaria, eskola-komunitate guztiarentzako formatu handiko aldizkaria. Gonbidatu gaituzten ekitaldie-

tako gure presentzia, eta interesgarritzat jo ditugunetakoa, prestakuntzako eta kanpoalderantz ateratzeko iturria izan da. Guztien artean Haurrentzako 2. ingurumen-kongresua aipatu behar da, Santiagon egin zena, non bederatzi ikasleko talde batek Patruila Berdeari buruzko hitzaldi bat aurkeztu zuen. Era berean, beste komunikabide batzuetan egoten ikasi dugu gure lana prentsan, irratian eta telebistan ezagutzera emanez.

Gizartearengandik hurbil egoteko asmoarekin, eta beste ikastetxe batzuekin parte hartzearekin, ekoeskolen sareko kide gara eta bere argitalpenetan kolaboratu dugu.

Atal horretan amaierarako utziko dugu *Pintzelo*, gure maskota. 2003-04 ikasturtean bere egun handia izan zuen bolumen fisikoa hartu eta ikusgarri bihurtu zenean. Bera da animatzen gaituena eta, nolabait, gure ingurumen-kontzientzia bihurtu dena. Hurrengo edizioetan sustatu beharko dugun baliabide didaktiko garrantzitsua.

- d) Prestakuntza. Hori gabe ez genuen funtzionatuko. Hainbat alorretatik egin da. Alde batetik koordinatzailearekin eta talde dinamizatzailearekin, kalitate-proiektu honetan inplikaturako beste bi ikastetxeekin, EHUrekin eta Ingurugelatik eskainitako ezinbesteko zuzendutako prestakuntzarekin egindako lanaren zuzeneko onuradunak izan direnak. Ondoren, irakasle guztiei zuzendutako asteazkenetako saioetan, funtsean, koordinatzaileak emandako prestakuntza dago. Beste talde bat ikasleak eta prozesu guztian zehar jorrotutako gai ugarietako tutoretzek osatu dute. Familiek ere izan dute beren espazioa haientzat prestatutako saio berezietan, partaidetza aldakorrarekin, baina parte hartzen zutenek hainbesteko interesa zuten ezen azken saioan gehiago egiteko eskatzen zuten.

Baloratu beharreko bigarren elementua *medioteka* da, irakasleen eskura dagoen ingurumeneko materialarekin sortutakoa. Aldizkariak, artikulak, liburuak, gelara eramateko material didaktikoa eta eraginkortasun egiaztatuko gelako jardueren katalogo bat egiteko saiakera.

Azkenik, prestakuntzak gure hezitzaile-zereginen ikaskuntzako beste elementu bezala erabilitako metodologiak aipatu behar dira: simulazio-jokoak, ideia-zurrumbiloa, talde txikiko lana, denbora murriztuen teknika eta *ikerketak-ekintza* teknikako gure saiakerak, edo gehien erabilitako *ikerketak-ekintza* inspiratutako «gurrupila» deitzen duguna eta hausnarketa-proposamena-ekintza-ebaluazioa eta berriz ere hausnarketako espiraleko prozesua dena.

- e) Ikastetxearen antolamendu eta kudeaketako alderdiak aldaketa esanguratsu batzuk izan ditu. Proiektuaren organigrama oso sinplea izan da: koordinatzaile bat, lau pertsonako talde dinamizatzailea, zikloko eta gelako egitura naturala, ikasleen artean patruila berdea eta irakasleen artean itzulpenekoa eta adituena bezalako talde bereziak. Ingurumen Batzordea, bertan guraso, ikasle eta irakasleek hartzen dute parte eta ikastetxeko ingurumen-kalitatea onartu, horren jarraipena egin eta zaintzearen arduradun da. Funtzionamendu horretan zuzendaritzak gizarteko eta kudeaketako harremanak hartzen ditu, koordinatzaileak prestakuntza, ordezkariak eta kanpora ateratzekoak; eta proiektuko prozesuak animatu eta baloratzen dituen talde dinamizatzailea.

Beste esparru batean, baina beti gertu, familiak egon dira zuzenean eta egoki diren taldeko organoen ordezkariak; eta beti baloratu dugun EHUren presentzia eta Ingurugelaren baliabide pertsonal baliotsuak.

Epeak aldatu egin ziren ostiraletan mintegi-espazio bat sortuz bestela egikaritzea zaila izango zen ekintzak egin ahal izateko.

Kudeaketari dagokionez, jokaeretan uraren eta argiaren erabilerako eko-eraginkortasuna sartu da (nahiz eta ezin dugun egiaztatu); papera berrerabiltzeko eta paper birziklatua erosteko ahaleginak egin dira. Komunikatuetan arauak ezarri dira baliabideak optimizatzeko (senideak ikastetxean), eta erosketen kudeaketa, ahal den neurrian, iraunkortasuna bilatuz egiten da.

Eguzki-panelak jartzeko azterlanak egin dira, eta egiten dira oraindik ere; ikastetxean janari ekologikoa eman eta ingurua ingurumen-kalitateko arauetara egokitzekoak (landareekin apaintzea, haurren jolas-tokia berritzea, jolastoki estalia egokitzea, berokuntza-sistema hobetu eta aprobeztatzea...).

- f) Ebaluazioaren atalean egindako aurrerapenik arinena adierazleena izan da. Gure ingurumen-kalitatea, gure prozesuak baloratzea adierazleei esker. Batzuk Ingurumeneko Eskola Kartatik estrapolatuta, besteak momenturako diseinatuak edo Eskolako Agenda 21en ondoriozkoak.

Euskal Herriko Unibertsitatearen prozesu guztia baloratzeko ebaluazio-proposamena, ondoren gure proiektuaren errealitatera egokitutakoa, eskola-komunitateko hiru sektoreetatik egin da: familiak, ikasleak eta irakasleak.

Familiak proiektuaren ezagutza-maila, partaidetza, hobekuntzak, jarrera-aldaketa eta komunikazio-bideak baloratzen zituen item itxi eta irekietako inkesta-test misto baten bidez hartu dute parte.

Gure ikasleek, irakasleentzako fitxa-gida batekin, taldeko lan batean proiektuaren beren ezagutza-maila, komunikazio-bideak, beren partaidetza eta jarrera-aldaketa ebaluatu dituzte.

Irakasleek prozesu guztia ikuspegi pertsonaletik baloratu dute (20 adierazlerekin lan egin dute) lorpenen maila eta etorkizunerako asmoak zehazteko, eta ikuspegi profesionaletik talde txikian (bost alderdi aztertu dituzte: Ikastetxearen Heziketa Proiektua eta Ikastetxearen Ikasketa Proiektua, eskola ekologikoa, komunitatea, prozesuak eta aurrekontuak).

Adierazleek honakoak baloratu dituzte: Ikastetxearen Heziketa Proiektuan edo Ikastetxearen Ikasketa Proiektuan sartutako aldaketak; transmititzen ditugun ingurumen-balioen berrikuspen-maila; ingurumen-eta gizarte-inguruaren erabilera didaktikoa; *kalitate-kudeaketa* eskolako bizitzan integratu den; funtzio-namendua hobetu den, hezitzaile-talde gisa; ikastetxearen itxura fisikoa hobetu den; geletan bistakoa da ingurumenaren gaia: horma-irudiak, txokoa, birziklatzea...; familiekiko komunikazioa hobetu den; proiektua zein interes pertsonalekin bizitu dudan; prozesua *presarik* gabe egin den, lorpenak finkatuz; *ikerketak-ekintza* metodoaren presentzia; proiektua baliozkotzen duten lorpen nahikoak izan diren; nigan aldaketa positiboak izan diren; ingurumenean hezteko oinarri ona sortu den; aldaketa positiboak gertatu diren gure ikasleengan; Proiektuaren ezagutza-maila; proiektuak hobekuntza profesionalak ekarri dizkit (presakuntza, metodoa, ideiak...); baliabide, material eta beharrak estali diren; elkarrizketarik egon den proiektua aldatu edo bideratzeko (baterako erantzukizuna) eta, azkenik, proiektuak ikastetxeari irudi bat eman dion eta, oso garrantzitsua dena, hori mantentzeak merezi duen erantzutea eskatzen zen.

Hiru ikasturteetan beti norberaren, taldearen, espazio fisikoen eta proiektuan edo unean uneko ekin-tzetan jarraitutako prozesuen hobekuntzako alderdiak jarraitu dira.

Atal horretan Ingurumen Batzordeak momentu horretara arteko prozesuaren jarraipena hiru hilean behin egin du, aurrerapenak berretsi eta hobetzeko proposamenak hartuz.

6.4. AINTZATESPENAK

Proiektuak entitate, erakunde eta pertsonen aintzatespena merezi izan du eta hezkuntzaren edota ingurumenaren munduan duen balioagatik lanean jarraitzera animatu gaituzte eta bere garaian hasitako bide ona berretsi digute. Besteak beste, aipatuko ditugu:

- Hezkuntzaren berrikuntzako Karmele Alzueta saria Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritzak 2001-2002 ikasturtean emandakoa.
- Gure udalerrria den Santurtziko alkatearen aintzatespena gutunaren bidez, Santiagon egin zen Haurrentzako II. Ingurumen-kongresuan parte hartzeagatik.
- Hezkuntzako Ikuskariak zorionak eman zizkigun.
- Sestaoko Berritzegunearen aintzatespena, gainerako ikastetxeetan aurkezteko eta 2004ko maiatzean egindako «Hiritargo berriak» jardunaldietako «xxi. mendeko hiritarrei» buruzko mahai-inguru batean parte hartzeko gonbitarekin.
- Abandoko Berritzegunearen aintzatespena, Eskolako Zientzien inguruko hitzaldi eta mahai-inguru batean, izen bereko 2004ko apirilean egin zen Jardunaldian.
- Gure lanaren aintzatespena eta 2002ko urrian Donostian egin ziren Euskal Herriko Ingurumen Hezkuntzako III. Jardunaldietan.
- Ingurugelako gure aholkularitzaren aintzatespen eta zoriona egindako lanagatik.
- Prozesuaren aintzatespena *Ihiza* (12. zk.), *Eco-schools Newsletter* (2003ko azaroa) eta *Ibiltzen* (30. zk.) bezalako hainbat argitalpenetan.
- Eta hezkuntzaren inguruko eta ingurumen-gaiarekiko sentikorrek diren pertsonen beste aintzatespen asko, hezkuntza imajinatzeko hego berriak ematen dizkigutenak.

Koordinatzaile gisa hiru ikasturte pasa ondoren, proiektuak zein bilakaera izan duen ikusi dut. Hasieratik, gogo zuhurretik, benetakoa izan arren, eta itxaropen handiekin, bidea luzea, batzuetan neketsua, dela egiaztatzen; prozesuak lasaia baina etengabea izan behar du; berria eta berritzailea beti gertatzen den desilusia isiltzeko, baina aldi berean atzera begirakoa, bizitutako prozesuak eta onartutako kontzeptuak berriz hartuz, sostengatzen gaituzten oinarriak eta elkar-tzen gaituen interesa ez ahazteko: *ingurumen-kalitateko ikastetxe* bat eraikitzea.

Proiektua gustura eta oso barrutik bizitu dut. Horregatik nire sententzioa bidea egin, partaidetza onargarria baino gehiago izan duen lan serioa egin izanarena da. Zaila da puntu honetan konpromiso-maila baloratzea, nahiz eta alderdi zehatzek esaten duten inplikazioa desberdina izan dela; sententzio hori normala iruditzen zait garrantzi hori duen, eta garrantzitsuena egindako ekintzak esanguratsuak izatea den edozein prozesutan. Proiektua aurreikusitako hausnarke-tako eta ekintzan jartzeko aldietatik nola pasa den ikusi dut, nahiz eta *zerbait falta zenaren* sententzioa geratu zaidan, pentsatzen dut denborak kenduko didala irekitako bide guztiak fin-katzen direnean.

Ziurrenik sententziorik arraroena proiektu oso pertsonala dela da, nire ilusioak eta eskaintzak motibatutakoa. Hor irekitzen da erronka berria, baterako partaidetzarena. Ingurumen-kalitateko ikastetxe honen zati handi bat eraikitzen lagundu izanaren sententzioa dut. Baina badakit orain-dik asko dagoela egiteko. Hemen «garrantzitsuena ez da egin duguna, egingo duguna baizik» gogoratu behar da.

Hausnarketa pertsonal honetan atzera begiratzen dut eta sententzioa da aldatzen ari garela, proiektuak ikastetxeari kalitatea duenaren eta horregatik lanean jarraitzeak merezi duenaren iru-dia eman dio.

José Manuel Echevarría Iglesias (Txeva)

Duela hiru urte klaustroan proiektua nik, hirugarren zikloko tutoretariko batek, aurrera erama-teko aukera planteatu zenean, eragozpenak jarri nituen jada gehiegi kargatuta dagoen irakaslea-ren zeregina gehiago kargatuko zuelako eta ezin izan nituen nire ziurgabetasunak eta erreparoa-ki eutsi. Hala eta guztiz ere, gehiengoaren borondatea ikusita, eta guztiek onartu zuten, ikaste-txea murgiltzen bazen nik ere egin behar nuela sentitu nuen. Horregatik ez nuen zalantzarik izan koordinatzaileak eta zuzendariak talde dinamizatzailearen parte izateko aukera eskaini zidate-nean, bere kideetariko bat izateko.

Prozesua oso gustura bizitu dut, ez hainbeste dinamizatzaile gisa (nahiz eta ezin dudan ukatu In-gurugelako, Unibertsitateko eta ingurumen-proiektua zuten beste bi eskoletako ordezkariekin egindako bileretara joan izanagatik asebetezea), ikaslearekin metodologia aldatzeko aukera-gatik baizik, ez bailitzateke posible izango proiektu hau gabe.

Hasierako beldurrei dagokienez, ezin dut ukatu lan gehiago egin behar izan dela; baina guztiz konpentsatu da guztiok onartu genuen eta eskolari hainbeste asebate eman dizkion proiektu ba-teko kide sententzeak eman didan asebetetzearekin.

Maite Marquina

6.5. ERRONKA BERRIAK

Lehen berrikuspena proposatu genuenean etorkizunaz abian jarri beharreko berrikuntzen eta ekintza berrien ildoan hitz egin genuen. Gaur, hiru ikasturte horiek amaituta, pentsamendu hori oraindik ere baliozkoa da. Orduan honakoa esaten genuen: «etorkizuna proiektuaren potentziala bere barnean dagoelako, eskolaren dinamika markatzeko bere gaitasunean». Gaitasun hori duen bitartean, logikoki pertsonak eman nahi diogulako, lan egiteko beste erronka berri bat aurkitzen dugun bitartean, bizirik jarraituko du.

Baina, oraingo honetan, Joaquín Araujoren eskutik, naturaren prozesuetan adibiderik argiena ikusten duenarenetatik, *gerundioan* hitz egin beharko genuke etengabeko ekintzan dagoenaren ildoan. Natura, bere prozesuak, ez dira geratzen, izaten ari dira; aldatu ahal izango dira, baina «bizitza gerundioan bizitzen da». Hori da gure proiekturako erronka handia: gure eskola izaten, bizitzen, egiten, baloratzen, kritikatzeko, hobetzen, berritzen, proposatzen, sentitzen...bihurtzea, gure ikastetxea ingurumen-kalitateko ikastetxe gisa.

Proiektuaren adierazlearen balorazio orokorrak eskura jartzen dizkigu hainbat erronka: Ikastetxearen Heziketa Proiektua eta Ikasketa Proiektua aldatzea pentsaera berriaren inguruan eta ingurumen-hezkuntza eskolako esparru guztietara zabaltzea; *ikerketak-ekintza* berriz hartzea, agian beste angelu batetik, eta horren onurak aprobetxatzea, laneko estrategia eta metodologiak berrikusiz; irakasleen taldeko funtzionamendua hobetzea laneko esparrua sustatuz, hezitzaile gisa, norberak eta taldean egiteko moduetan; talde txikietan parte hartzea sustatzea; prestakuntza indartzea iraganeko agiriatarako atzera begiratzeen bitartez; eta beti familiekin lan egitearen erronkarekin jarraitzea.

Ekintzarako hezkuntza jorratzen duten beste etorkizuneko erronka batzuk (ikastetxea ingurunean Eskolako Agenda 21en eskutik ezagutaraztea), izpiritu kritikoa eta partaidetza sustatzeko (talde dinamizatzailearen planteamendu berria; ingurumen-batzordearen antolamendu berria).

Ikasleentzako liburutegi espezializatua sortzearen erronka, liburu, aldizkari, agiriekin; prentsa-mintegia; Pintzelori protagonismoa ematea; web-orria berregituratzea; baterako partaidetzaren erronka, proiektua pertsonak alde batera utzita errealitatea izatearena.

Hala ere, gure erronka nagusia oraindik ere pertsonak dira: helduak eta gure ikasleak. Erronka horretan dago Serantes *ingurumen-kalitateko ikastetxearen* eraikuntza horren izateko arrazoia.

7.1. SARRERA

Gure ikastetxea Gipuzkoako Goierri bailaran kokatuta dago. Legorreta herriak 1.400 biztanle inguru ditu eta hor ari da mantentzen urteetan zehar, nahiz eta azken urte hauetan etxebizitza-eraikuntzako prozesu zabal batean murgildurik egon. Biztanleria-kopurua mantentzea edo hobetzea espero da (ez dugu ahaztu behar hemendik gertu, 5-7 kilometrora, Beasain eta Ordizia bezalako herri handiak ditugula, horrek suposa dezaken ihes egiteko arriskuarekin).

Gure ikastetxean, batez beste, ikasturteko 100 bat ikasle izaten dira. Beraz, datu hau eskuetan harturik, eta komunitatean txertaturik daudenak 85 familia direla eta, hori gutxi balitz, herriko ikastetxe bakarra gara esaten badugu, herriarekiko lotura eta zerikusia erabatekoa dela gaineratu behar da (udalarekin, herri eragileekin, etab.).

Ikasgeletan, ratioak direla-eta, maila bat baino gehiago egon ohi dira eta datozen urteetan, etxe berriak direla-eta, ikasle-kopurua maila bakoitza ikasgela batean egon ahal izateko nahikoa izatea espero eta nahi dugu. Gainera, haur eskola martxan jarri nahi da ikastetxeko espazioan, honek denontzat suposatzen duen erronkarekin.

7.2. BIDEA

Ikastetxe honetan, ia ikastetxe guztietan bezala, betidanik izan da naturarekiko eta ingurumenarekiko kezka bat. Hori gabe nola kontzeptualizatu bada heziketa? Gauden eta izan diren irakasleen artean izan da bai gai honekiko konpromisoa eta zerbait egin nahia. Zerbait egin nahi hori, lehen urrats batean, ekintza batzuk burutzean gorpuztu da eta gero ekintza horiek elkarren artean lotu egin dira proiektu ezberdinak osatuz, curriculumean txertatuz.

Esan bezala, hasieran *ekintza bakanak* izan ziren (habia-kaxen garbiketa, Ibaialde programa, murrizketa planak, mintegi gisa hasi zen Eskola Baratzea, besteak beste). Ekintza hauek elkarri lotuz ikastetxeko bizitza osorik tindatuko zuen proiektu edo egitasmo bat gauzatu nahi izan genuen eta duela 8 urte martxan jarri genuen. Proiektuak aberasten eta sendotzen joan ziren, nahiz eta irakasleen behin-behinekotasunak oztopo asko jarri (gaur egun gertatzen zaigun bezalaxe).

Ondoren, Eco-school programan parte hartzea erabaki genuen eta baita parte hartu ere 3 urtetan. Programa honek aurrerapauso garrantzitsuak ematen lagundu zigun (ekoauditoreak, *Ingurumen Batzordearen* osaketan sakondu, etab.). Hiru urte hauetan gai ezberdinak jorratu genituen (energia, hondakinak eta ura)

eta tresna oso baliotsua izan zen ondorengo lanketei aurre egiteko. Ikurrina Berdea lortu eta ikastetxean zintzilikatuz programari amaiera eman genion (2001-2002 ikasturtean).

Ordurako hasiak ginen beste asmo batzuk gauzaten eta Greenpeace-k antolaturiko «Ikastetxe Eguzkiarren Sarean» sartzea erabakita genuen (1999ko azaroan, hain zuzen ere). Handik hilabete batzuetara eta laguntzaile dugun EREDU ENEA kooperatibari esker Estatuko Haur eta Lehen Hezkuntzako lehen ikastetxea izan ginen plaka fotovoltaiko osaturiko instalazio bat lortzen. Instalazioa 10 plakaz osaturik dago eta tentsioa, aldagai batez alternoa bilakatuz, sarera bidaltzen dugu. Hitzarmena sinatzeko 15 hilabete behar izan ziren, ez baitzegoen aurreko adibiderik, eta pausoak ematea nekeza izan zen oso. Azkenean 2001eko apirilaren 25ean instalazioa konektaturik geratu zen eta Iberdrola argindar-enpresa gure argi-indarra erosten hasi zen, guretzat oroigarria den egun batean.

Bestalde, adierazi dugu Eskola Baratzeari aspaldidanik eman ohi diogun garrantzia. Paper garrantzitsu hori ezerezean geratu zen Udalak uzten zigan lur saila etxebizitzak egiteko berreskuratu zuenean. Bertan jarrita genuen berotegia (gurasoen laguntza ezin ahaztu) kendu beharra izan genuen eta zer egin erabaki arte baratzerik gabe geratu ginen. Estatusunetan lagunak buruan eta EREDU ENEA kooperatibari gure arazoa azaldu eta berotegi berri bat eta lorategi baten eraikuntzan eta osaketan bere erabateko laguntza jaso ahal izan genuen. Hor dago baliabide eder hori elkarlan horren lekuko!

Proiektuei buruzko hurrengo pausoa *Ingurumen Kalitateko Ikastetxea* izeneko proiektuari ekitea izan zen eta 2001-2002 ikasturtean proiektu honetan murgiltzea gauzatu genuen, horretarako aurreko ikasturtean eskaria eta lanketa aurkeztuz (Irakasle Klaustroan onartu eta gero).

Proiektu hau hiru urtetako egitasmo bat bezala planteatu zen, urte bakoitzak nortasun propioa zuela. Proiektuaren ardatza *ikerketak-ekintza* metodologiaren azterketa eta egokitzapena zen eta honek suposatzen zuena erronka handia zen guretzat. Brinkolako Ingurugelako lagunaren aholkularitzarekin bide berri honi ilusioz ekin genion.

7.3. HIRU IKASTURTETARAKO EZARRITAKO EGITASMOAK

Orain arteko gure ibilbidea ikusita, Ingurugelak duela hiru ikasturte *Ingurumen Kalitateko Ikastetxea* izeneko proiektu batean murgiltzeko eskaini zigan aukera, erronka berri bat izan da guretzat. *Ikerketak-ekintza* metodologia ezartzeko bideari heldu geniolako eta *eskola eredu berri bat* eraikitzeko bideak jorratzeko laguntza izan dugulako:

- Metodologia aztertuz.
- Gure eguneroko didaktikaren inguruan hausnartuz.
- Curriculumak osatuz, diziplinartekotasuna bultzatuz.
- Eskolako antolamendua birplanteatuz, ikasleriaren partaidetza tresnak bultzatuz.
- Eskola herriari zabalduz.

Helburuak

a) Ikastetxearen heziketa proiektua berrikustea:

- Partaide guztien arteko eztabaida eta gogoeta zabaltzea eskola iraunkorraren irizpideak ulertzen eta onartzen joateko. Gogoeta eta eztabaida horiek Jokaera Kodearen oinarri izango dira.
- «Ingurune natural eta sozialaren ezaguera» izena duen curriculumeko arloaren inguruan aritu bertan azaltzen diren helburu, eduki eta abar mailakatzeko eta era koordinatuan garatzeko.
- Inguru natural zein sozialaren eta komunitatearen erabilera didaktikoa indartzea, gelatik kanpoko irteera eta ekintzak indartuz eta aberastuz.

- Irakasteko estiloa praktikotasunean oinarritzea, *ikerketa-ekintzaren* bidez. Honetarako ikastetxeko zenbait instalazio nahiz baliabide indartu eta berpiztu egin beharko ditugu (laborategia, etxetxo meteorologikoa, etab.).
- Ikastetxeko ingurumenarekiko Jokaera-Kode Orokorra idatziz jasotzea, ikusgai jarritz, denok kontutan izan dezagun.
- Ikastetxeko bizitzan aktiboago parte hartzea bultzatu bertan antolatzen diren ekintzetan gehiago inplikatur (emanaldiak, aldizkaritxoak, etab.).

b) Eskola iraunkortasunerantz bideratzea:

- Eskolaren ingurumen diagnostikotik ateratzen diren arazoei konponbidea emateko nahiarekin jarraitzea.
- Baliabideen kontsumoa eta hondakinen ekoizpena murriztea.
- Informazio bideak eta partaidetza-metodoak hobetzea.
- Komunitatearen bizitzan parte hartzea.

c) Eskola gizarteari zabaltzea:

- Gure proiektu eta egitasmo antzekoak dituzten beste eskolekin harremanetan jartzea.
- Komunitatean eratzen diren ingurumenaren aldeko ekintzetan parte hartzea.
- Gure komunitatearen lan eta egitasmoak inguruan ditugun erakundeei luzatzea (laguntzaile ditugun EREDU ENEA eta EDERFIL kooperatibei, adibidez eta, hori guztia, udalaren parte-hartzea eta laguntza ahaztu gabe).
- Atal honetan, aldizkaria oso positiboa izatea espero dugu, bertako zereginetan parte hartu, horiek ezagutu eta zabaltzeko garaian.

Proiektuaren garapenean honako lan hauek eraman ditugu aurrera:

- Gogoeta eta antolaketa.
- Gauzatzea.
- Finkatzea eta komunikazioa.
- Ebaluaketa eta jarraipena.

Lehen ikasturterako hartu edo aukeratu genuen gaia *ura* izan zen (Eco-school-eko lanketarekin bat eginez) eta gai horren inguruan beste interesgune guztiak lantzen aritu ginen. Ikasleen interesetatik abiatuz, haiek adierazitako gai eta alderdiak hartuz saioak eta arloetako garapena gauzatzen saiatu ginen. Zailtasunak lagungarri izaten dira etorkizunerako eta halaxe gertatu zitzaigun: ikasturte horretan landutakoa oinarritzea izan baitzaigu gero ondorengo lanketei aurre egiteko. Aipagarriena metodologian egin genituen aldaketak izan ziren, orduantxe hasi bainekin *ikerketa-ekintza* metodologia ezartzen.

Hurrengo ikasturtean (2002-2003) *ingurunearen ezaguera* arloa hartu genuen ardatz gisa eta horren baren azaltzen ziren gai eta esparruen lanketari ekin genion. Ikastetxe osoan erritmo bat ezarri nahi izan genuen gaiak lantzerakoan eta, bide batez, curriculumean erabat txertatu ordura arte burutzen genituen ekintza guztiak. *Egun bereziak* (pobreziaren aurkako eguna, indarkeriarik gabeko eguna, martxoaren 8a, etab.) ere aukeratu genituen hauen inguruan gaien garapena gauzatzeko. Maila ezberdinetako programazioa kontuan hartuz, beharrezkoak ziren egokitzapenak egin genituen eta emaitza ikasturte horretan ere nahiko pozgarria izan zen. Geletan nahiz Ingurumen Batzordean behin eta berriz aritu ginen balio-heziketaren inguruan, geletan eta ikastetxeko eguneroko bizitzan gertatzen diren gatazka eta eztabaidak egoki bideratu ahal izateko (gela barruan, jolastokian...). Ikasturte honetan guraso elkartearen eta EDERFIL kooperatibaren laguntzaz ikastetxeko uraren kudeaketarako tresnak (iturriak, dutxak) aldatu egin ziren, uraren murrizketan lagungarri diren teknologia berriko tresna batzuekin ordezkatuz lehen zeuden iturri eta dutxak.

Azken ikasturtean gure erronka gai multzo bakoitzari diziplinartekotasunetik erantzutea izan da, gai batekin hasten ginenean arlo ezberdinetan landuz bere aukera didaktiko guztiak garatzeko. Adibidez, gaia *animaliak* bazen hizkuntzen arloan horren inguruan aritu ginen idatziz edota ahoz, matematikan animaliak azaltzen diren buruketak proposatuz, irteera aproposen bat burutuz, etab. Ikasturte amaieran ikasgela eta maila bakoitzean sorturiko materialen bilduma bat egin da datozen ikasturteetan baliagarri izan dadin. Lorategiari eta berotegiari beste elementu aberasgarri bat gehitu zaie, konposta osatzen hasi baita Lehen Hezkuntzako azken zikloko taldea, bere tutorea proiektu honen arduradun eta gidari izan delarik. Sasieta mankomunitatearen aholkularitzapean burutu dugun ekintza honen emaitza oso interesgarria izan da eta datozen ikasturteetan ere bide horretatik jarraituko dugu, oso positiboa izan delako ikasle eta familien inplikazioa (konposta osatzeko materiala etxeetatik ekarri baitute).

Esan beharra dago hiru ikasturtez behin burutzen dugun Ateak Zabaltzeko Eguna ikasturte honetan burutzea egokitu zaigula (ekainaren 4an, hain zuzen ere) eta nabaria izan dela guraso eta familien ingurumen-arlo honetan burutu ditugun ekimen eta ekintzen inguruko interesa.

Urte hauetan pobreziaaren aurkako konpromisoaren ildotik urratsak emanak ditugu, El Salvador, Bolivia, Sahara eta bertako baztertuen aldeko erakundeei gure laguntza eskainiz, aurrekontuaren %0,7a oinarritzat hartuz (errealitatean laguntzak beti zabalagoak izan badira ere). Diru-laguntzaz gain, erakunde ezberdinetatik antolatzen diren arropa-oinetakoen, eskola-materialen eta janariaren bilketak urtero burutzen ditugu, komunitatearen erantzun zabala jaso ohi dugularik. Aipagarria da ikasleen ideia gorpuztuaz korridorean bakoitzak bere diru-ekarpena anonimoki egin ahal izateko jarri zen *elkartasun postontzia* ere.

Urte hauetako zerbait azpimarratzekotan familia eta gurasoen inplikazioa lortu nahia izango litzateke, arbi izan baitugu elkarlanaren bitartez ez bada arlo honetan, besteetan bezalaxe, ez dugula gauza handirik lortuko eta hemen egiten ditugun lanketak eta gogoetak etxeetan isla eta jarraipen bat izan behar dutela, saiakera hauek ustelak ez izateko. Ikastetxeko sarreran iradokizun-postontzia jarri genuen, gurasoen ideiak nahi izanez gero modu anonimoz jaso ahal izateko.

Kidetasun eta partaidetza hori bideratzeko ezinbesteko elementua Ingurumen Batzordea izan da eta izango da eta gure ahaleginak hori sendotu eta indartzearen bidetik joan beharko du, hori baita komunitate honen taupada. Batzorde horretatik sortzen diren ideia eta proposamenak gizarte osoa lotzen dute eta datorren ikasturtean indarrean jarriko den Tokiko Agenda 21en murgiltzeak ere aberaste bat ekarriko dio, Eskola Agenda 21a eta Tokiko Agenda 21ak eskutik joan beharko baitute.

7.4. ETA GERO ZER?

Gerora begira gure erronka, beste askorena bezala, aipaturiko Eskolako Agenda 21en bitartez Tokiko Agenda 21en barnean eragile izatea izango da. Gure lan-esparruan gure esku dagoena eginez, gizartearen beste eragileengandik etor daitezken laguntzak eta laguntza-eskaerak bideratuz, orain arte egin ohi dugun bezalaxe elkarlana bultzatuz.

Momentuz badugu epe laburreko egitasmo bat: eguzki plaken instalazioak bikoiztu eta lekuz aldatzea. Bikoizketa, gure instalazioa 1.100 W-tatik 2.200era pasako delako eta lekualdaketa, duela lau urte jartzea erabaki genuenean finkatu genuen helburuetariko bat (instalazioarekiko familiartasuna eta gertukotasuna ikasleengan bultzatzea) lortutzat ematen dugulako, gaur egun gure ikasleentzat instalazioa ikastetxeko baliabide ezaguna delako. Oraingo honetan ere EREDU ENEA enpresarekin dugun harremanaren adierazgarri izango da instalazio berri hau; beraiekin eta beste enpresa, norbanako eta erakundeekin elkarlana bultzatuko dugu, hori baita gizarte hobeago bat lortu ahal izateko bidea.

III. EREDUAREN BALORAZIOA ETA BIDERAGARRITASUNA



Prozesuaren eta emaitzen balorazioa

8

8.1. EBALUAZIOKO PROPOSAMENA ETA TRESNAK

Ikerketa-ekintzako prozesua ebaluatzeko, kanpoko taldeak proposamen bat egin zuen Kemmis-MacTaggart autohausnarketako espiralaren eskema jarraituz. Ildo horretan, puntu desberdinak garatzea pentsatu zen, prozesuaren aldi desberdinetako galderei zegozkienak. Lehenik, taldeak hasierako proiektuan planteatutako *helburuak* berrikusi beharko ditu, horren inguruan egin ziren aldaketak behatu eta horien zergatiak adieraziz. Helburu horiek lau ziren:

- Ikastetxearen Heziketa Proiektua egokitzea (curriculumeko edukiak, ingurumen-balioak, inguruaren erabilera didaktikoa...).
- Eskola ekologikoa eraikitzea (ingurumen-kalitateko kudeaketa hezkuntzako praktikan sartzea, horrek suposatzen dituen antolamenduko aldaketak...).
- Eskola komunitateari irekitzea (komunitatearen *hezkuntza: iraunkortasuna*).
- Ikerketa-ekintza* metodologia erabiltzea.

Bigarren, taldeak *ekintza-planaren* inguruan hausnartu behar zuen. Helburuen berrikuspena egin ondoren eta, egin zen aukera justifikatuaren arabera, zein ekintza proposatu ziren? Zergatik? Hau da, taldeak beren kideek gai bat edo beste sustatu edo konpontzeko helburuen maila bakoitzean nola jardun behar zen pentsatzen zuten, zein konponbide eta konpromiso hartu ziren, zein metodologia erabili zen (bilera, eztabaidak...). Nola lan egin zen eta erabakiak nola hartu ziren, ondorioak idazten ziren eta abarren inguruan hausnartu behar zuen. Azken finean, hemen ebaluazioa taldearen historia hausnarketa eginez gogora ekartzea zen, aldaketarako proposamen desberdinekin eta hobetzearekin batera.

Baina, zein da aldaketa hori egiaztatzeko modurik sakon eta fidagarriena? Espirala aldaketak *behatu* eta egoki diren *ondorio kritikoak* ezarriz ixten da. Hausnarketa orain praktikaren inguruko gaien erantzun bihurtzen da. Hori aurreko aldian planifikatutakoaren garapena izan al da? Zailtasunak egon al ziren? Nola konpondu ditugu? Aldaketen berri emateko taldeari *ardatz* bat prestatzea proposatu zitzaion behaketan sar zitezkeen baldintza guztiak *alderatu* ahal izateko. Lau helburu, baina, helburu horien inguruko zein eta zenbat aldaketa? Hemen ere Kemmis irakaslearen aholku batzuek *lilura* gaitzaten utzi dugu: hezkuntzako praktika bat esanguratsua izango litzateke ondoko aldaketak inplikatzan baditu:

- Hizkuntzetan eta diskurtsoan.
- Jarduera eta praktiketan.
- Gizarte-harremanetan eta antolamenduetan.

Beraz, aldaketa horietariko zein helburu bakoitzaren barruan gertatu den eta bere eduki eta zentzua zein den egiaztatzea (=hausnartzea) izango litzateke. *Ardatzaren* irudia honakoa izango litzateke:

	Ikastetxearen Heziketa Proiektua egokitzea	Eskola ekologikoa eraikitzea	Komunitateari irekitzea	Ikerketa-ekintza erabiltzea
Hizkuntzetako aldaketak				
Praktiketako aldaketak				
Gizarte-harremanetako eta antolamenduko aldaketak				
Beste batzuk...				

Eskemaren maila bakoitzak, *tarte* bakoitzak espezifikazio batzuk (adierazleak) ezarri eta behaketa egiteko beharrezko tresna edo trenak hautatzea (taldeko elkarrizketa, elkarrizketak, etab.) eskatuko luke, bai eta datuak lortzeko inplikaturako kolektiboa edo kolektiboak ezartzea ere (ikasleak, gurasoak, irakasleak). Ingurugelako aholku-taldeak jarraibide horietariko batzuk proposatu zituen. Adibidez, «proiektuan erabilitako *ikerketa-ekintza*ko metodologia aztertzea» helburua, «hizkuntza eta diskurtsoko aldaketak» alorrari dagokionez, honela garatu ahal izango litzateke:

	EBALUAZIOA ZUZENDUKO DUTEN ADIERAZLEAK	TRESNAK EDO TEKNIKAK/MAILA
Hizkuntzetako eta diskurtsoko aldaketak	Gure lankide, guraso, ikasleei azaldu al zaie ikerketako metodologia (maila desberdinetan)? Zein emaitzekin?...	Taldeko hausnarketa (irakasle inplikatu); lankide eta guraso batzuei galdetzea...
	Ohikoa al da, gure esperientziaz geroztik, ikerketarekin erlazionaturiko terminoen aipamenak entzutea?	Autohausnarketa, lankideentzako inkesta
	Inplikaturako kolektiboen diskurtsoan ikusten al da aldaketarik elkarrizketa, hausnarketa eta taldeko lanari ematen zaion balioari dagokionez?	Behaketa-hausnarketa (irakasleak)
	Hezkuntza-berriztapena eztabaidatzen al da klustroan?	Behaketa-hausnarketa (irakasleak)

Horrela, ardatzaren balizko garapen oso bat eskaini zen taldeei inplikaturako edozein puntutan hausnarketa-ikerketa egitea ahalbidetzen ziena, bai eta, ondorioz, beren praktikari hoberen egokitzen zitzaizkien aukeratzea ere, beti egoki zeritzoten baldintzak aldatzeko aukerarekin bere idiosinkrasiaren, baldintzen eta prozesua gertatu zen hezkuntza-testuinguru jakinaren arabera.

Azkenik, ebaluazioak *ekintza-planaren* eta horren egokitasunaren berri emateko balio beharko luke, ondorio orokor batzuk ezarriz. Aurreko azterketaren emaitzen arabera (ardatzaren garapenean oinarrituriko ikerketa), taldeek honakoa lortu beharko lukete:

1. Proiektuaren inguruko hausnarketa orokorrak: nahi genuena lortu al dugu? non geratu gara? zergatik?... Hala badagokio, bidean aurkitutako arazo eta zailtasunak...; nola hartu/baloratu dute *ekintza-plana* ikasleek, gurasoek, gure lankideek? zein alderdi mantendu eta zein aldatu beharko liriateke lortutako emaitzen arabera?
2. Norberaren/taldearen hausnarketak: nola bizitu ditugu guk aldaketak? zer ekarpen egin digu indibidualki eta taldekide gisa esperientzia horrek?; zertan egin dugu aurrera?; nola sentitu gara?; nola baloratu digu oro har prozesu hori?

3. Ikerketaren inguruko hausnarketak: nola baloratzen dugu horren garapena? zein punturaino konprometitu gara metodologia horrekin? zer ekarpen egin digu? zer ekarpen egin geniezaieke guk beste pertsona batzuei gure esperientziarekin?

8.2. PROIEKTUAREN IKASTETXEETAKO EBALUAZIOA

Adostutako ebaluazio-proposamenaren aurreko hiru ikastetxeen erantzun *zehatza* desberdina izan zen. Gauza ez zen *ardatzaren* aukera guztiak agortzea, noski, hori ikastetxeen idiosinkrasia, sentsibilitate eta testuinguru desberdinetara zuzentzea baizik, ondoren garatu beharreko alderdiak aukeratzuz.

Lateorron, hizkuntzan egondako aldaketen inguruan partaidetzaren inguruko diskurtsoa hartzen joan den garrantzia azpimarratzen da, nagusiki ikasleei dagokienean (irakasleen partaidetza seguruagotzat jotzen da), hori guztia beren gertuko inguruaren interpretazioan eta hobetzean islatuz: eskola, familia eta auzoa edo udalerria. Era berean, bereziki familiekiko komunikazioa landu da, ikastetxearen hezkuntza-planteamenduen ezagutza handiagoa bilatuz. Proiektuak klaustroa kalitatea bezala garrantzitsuak diren gaietako diskurtso-inplikazioa suposatu du, nahiz eta, agian, ezin izan den adostutako definizio bat lortu. Aldaketa nabariak egon dira Ikastetxearen praktiketan. Adibidez, proiektuaren bilakaerak ingurumen-jardueren zehaztapenean eragin du. Ikasturteko gutxi edo gehiago *unean unekoak* ziren eta ikasleei zuzentzen zitzaizkien sei edo zazpi jarduera antolatzen zabalagoak, sakonagoak ziren eta ziklo guztiei zuzentzen zitzaizkien urteko bi edo hiru programa antolatzen pasatu da, familien partaidetza bilatuz.

Legorretako zentroak *sui generis*agoa den ebaluazio-hausnarketa egin du. Prozesu kualitatiboak kuantitatiboekin nahastu dira, beharrezkoa iruditu zaien bakoitzean, inkestak eta portzentajeko balorazio-kontaktak erabiliz. Hizkuntzaren eta diskurtsoaren aldaketei dagokienez, familiekiko harremana landu da bereziki, ikastetxearen proiektu eta jarduera orokorretako, ebaluazioko jardueretako, antolamenduko, zerbitzuko, arauen eta, nola ez, ingurumen-hezkuntzako partaide egiteko. Azken esparru horretan, arreta berezia eskaini zaie proposamenak irakasleei iritsarazteko bideari (*hizkuntzakoak*), horiek ulertzea erraztuz (ulermen-maila ikertu egin da, emaitza positiboekin, oro har, aldi berean hobetzera zuzendutako hausnarketa bat errazten dutenak).

Legorretan Ingurumen Batzordearen funtzionamendua ebaluatu da, ikastaro desberdinetan jorratutako gaiak berrikusi eta egoki den balorazioa eginez. Praktiketako eta gizarte- eta antolamendu-erlazioetako aldaketa berrikusi dira. Horrela, eskolaren arauak eta —hala badagokio— horiek ez betetzearen arrazoiak aztertu dira. Ingurumen Batzordeari iruditzen zaio ikastetxeko funtzionamenduan aldaketa handiak egon direla bereziki partaidetza eta proposamen berritzaileak sortzea hobetuz. Geletako lana sakon berrikusi da hobetzeko helburuarekin. Jarduera horiek nabarmen eragin dute ikastetxeko jarduera orokorren kalitatean eta ikastetxearen familiekiko komunikazioan.

Santurtziko Serantes ikastetxean berariaz landu da helburuen, egin den *ekintza-planaren* eta behaketa-eta hausnarketa-prozesuen berrikuspena. Horretarako, ebaluazio-fitxa desberdinak sortu ziren, zehazki, Ikastetxearen Heziketa Proiektua, Ikasketa Proiektua, eskola ekologikoa, eskolako komunitatea, prozesuak eta horien aurrekontuak kritikoki berrikustera zuzendutakoak. Hizkuntzan, ohiko ekintzetan eta antolamenduan izandako aldaketak baloratu ziren. Fitxa horiek irakasleei oro har nahiz tutoreei, ikasleei eta familiei zuzentzen zitzaizkien eta horrek ahalegin handia eskatu zuen galdeketa (fitxa) prestatu eta maila bakoitzaren ezaugarrietara egokitze. Ebaluazioak, horrela ulertuta, *ekintza-planaren* berrikuspena egitea ahalbidetzen zuen, bere alderdirik esanguratsuenak eta proiektuak pertsona desberdinen gan izan zuen eragina bilatuz. Fitxa horien emaitzak, berez kontraste eta alderaketa ugari eskaini zitzaizketenak, koordinatzailearen eta talde dinamizatzaileko kide zen irakasle baten balorazioarekin *triangelatzen* ziren, zailtasunak, arrakastak eta proiektu honekin hasitako ildoarekin jarraitzeko gogoaz azpimarratzen zutenak.

Hartutako ebaluazio-prozesua klaustroan aurkeztu zen eta horrek, aldi berean, proiektuaren aurreko ideia guztiak, helburuak eta talde koordinatzailearen proposamen orokorra gogoratzeko balio izan zuen.

8.3. BALANTZE LABURRA ETA HAUSNARKETA BATZUK

Prozesu guztietan bezala, urte hauetan lorpen eta porrot txiki ugari izan ditugu. Batzuk eta besteak laburbildu ditugu gure ibilbidearen *balantze* txiki bat eskaintzeko.

Kemmis eta McTaggartek (1988) adierazten dute *ikerketa-ekintzak* hezitzaileek beren lanaren inguruan egiten duten ohiko hausnarketa gainditzen duela sistematikoagoa eta kolaboratzaileagoa delako, taldeko hausnarketa zorrotzaren oinarri izateko datuak bilduz. Prozesu hori «gizarte-egoeretan dauden partaideek beren gizarte- edo hezkuntza-praktiken arrazionaltasuna eta bidezkoatasuna nahiz praktika horien eta gertatzen diren egoeren ulermena hobetzeko helburuarekin hasitako barne-begiradako aztertze kolektiboko modu» bezala ulertzen dute.

Beraz, helburu nagusi errealtate jakin bat ezagutzea beharrean aldatzea duen prozesu baten zerbitzurako tresna indartsua da (Lara, 1992).

Hala eta guztiz ere, hasieratik proposatutako *ikerketa-ekintza*ko prozesuak praktikara eramaterakoan, *zailtasun* batzuk aurkitu ditugu.

Adibidez, lehen momentuan helburua klaustro osoak *ikerketa-ekintza* egitea zen, baina konplexuegia zen. Birplanteatu ondoren atera zen ondorioa izan zen gauzatu zezakeen taldea ikastetxeko talde koordinatzaile zela. Murritzagoa eta motibatuagoa zen talde horretan ematen ziren hezkuntza-praktika hobetzerako eramango zuen hausnarketa-espinala planteatzeko baldintzak.

Beste alde batetik, hasieratik proposatu zen tresna nagusia kontakizunak egitea izan zen ondoren aztertu eta ondorioak ateratzeko. Hemen ere denbora faltagatik, idazteko ohitura eskasetik ondorioztatutako arazoak azaldu ziren, bereziki kontakizunaren teknikari dagokionez, edo teknikaren egokitasunaren inguruko zalantzak. Pertsona batzuen iritziz teknika hori zorrotzegia eta praktikotasun gutxikoa zen. Horrela, gurasoekin elkarriketak egitea, datuak hartu ondoren behaketa zuzenak egitea, inkestak eta beste hainbat tresna ere erabiliko zirenen ondorioa iritsi ginen.

Laburbilduz, prozesuan zehar ondokoetarako zailtasunak aurkitu ditugu:

- Diskurtsoaren eta praktikaren arteko koherentzia mantentzeko.
- Onartu genuen eredu metodologikoa behar bezala garatzeko.
- Taldean lan egiteko.
- Helburu genuen hezkuntza-ikerketa egiteko denbora eta tresnak aurkitzeko.
- Gauzatutako prozedurak eta hausnarketak idatziz jasotzeko, hala pertsonalak nola taldekoak.
- Irakaskuntzako lana praktikaren inguruko autohausnarketako espinal gisa planteatzeko.
- Prozesuaren eta emaitzen ebaluazioa egingo duten baliozko adierazleak aurkitzeko.

Planteatu dugun prozesuaren ideari jarraiki, identifikatutako zailtasunek hobetu beharreko alderdiak daukela adierazten dute, hau da, etorkizunean aurre egin beharko diegun erronkak.

Beste alde batetik, proiektutik ondorioztatutako *hobekuntza* batzuk ere aitortzen ditugu eta horien artean honakoak azpimarra daitezke:

- Ingurumen-gaiak curriculumean sartzea.
- Ikastetxearen alderdi fisikoetan eta ingurumenekoetan aldaketa positiboak.
- Irakasleen inplikazioa eta konpromisoa.
- Ikasleen eta familien partaidetza.
- Gizarte-ingurunearekin komunikatzea.
- Ikastetxearen irudia eta onarpen soziala hobetzea.
- Ikastetxeko kide izatearen eta komunitatean integratuta egotearen sentimenduak indartzea.

Azpmarratu behar dugu hobekuntzak ez dituztela proiektuan inplikaturako pertsonen bakarrik baloratu, kanpotik sariekin (2002an, Serantes LHik Hezkuntza Berriztapeneko Karmele Alzueta saria jaso zuen), esperientzia ezagutarazteko jardunaldi eta kongresuetarako gonbidapenekin, komunikabideetako erreportajeekin eta abarrekin ere aintzatetsi dira.

Balantze labur hau ezingo genuke amaitu *ikasi duguna* azpmarratu gabe, proiektuaren esentzia dela esan genezakeena:

- Urte hauetan zerbait ikasi badugu eskola *hezkuntzako komunitatea* dela da eta bere sektore desberdinen (irakasleak, ikasleak, familiak eta irakasleak ez diren langileak) *partaidetza* sustatzeko bide eta prozedurak aurkitu behar ditugula. Egiaztatu dugu, heldu eta hobetzeko prozesu honetan, inplikaturako pertsonen partaidetza, bakoitzak komunitate horretan duen paperetik, funtsezkoa dela.
- Beste alde batetik, hezkuntzako komunitate bakoitzak bere *prozesua* jarraitu behar du, bere errealitatea eta bere testuingurua onartuz, bere ziurgabetasun eta zalantzeekin, bere aurrerapen eta geldialdiekin. Adituen, beste ikastetxe batzuen esperientzien, erakunde-programen eta abarren laguntza izan dezakegu, baina gure proiektua —gure esperientzia, ilusio eta desengainuak eskaintzen dizkioguna— da gure ibilbidea ezarriko duena.
- Susmatzen genuen hezkuntzaren berrikuntza ezin dela kanpotik ezarri, praktikaren inguruko hausnarketan oinarritu behar duela, hala esparru pertsonalean nola taldekoan. Orain ziur gaude *ikerketak* planteatzen duen autohausnarketako espirala aldatu eta hobetzeko tresna sendoa denaz. Ingurumen-hezkuntzak berrikuntza pedagogikoa bidera dezakeela ere egiaztatu dugu praktikan, hezkuntza-prozesuko alderdi batzuetara mugatu baino gehiago etengabeko hobekuntzarako erreferentzia bihurtu behar duela.

8.4. HAU EZ DA AMAITU

Proiektuaren garapenean zehar, eta aurreko esperientzien bilakaera gisa, IHik programa berri bat jarri zuen abian: Eskolako Agenda 21 (Fernández Ostolaza, 2002). Eskolako Agenda 21 hezkuntza komunitatearen *konpromisoa* da eta ikastetxeko eta inguruko ingurumen- eta gizarte-hobekuntzaren aldeko *ekintza-plan* bat. Programa horren bitartez, ikastetxeek ikastetxearen eta udalerrriaren ingurumen-kudeaketa aztertzen dute, azterketa hori hezkuntza-baliabide bihurtuz. Era berean, hezkuntza-komunitateak antzemandako arazoak konpontzean parte hartu eta garapen iraunkorrera zuzendutako alternatibak planteatzeko aukera du.

Programa horrek *ingurumen-kalitateko eskolarako proiektuaren* ekarpenak sartu, bere oinarritzko printzipioak banatu eta tokiko komunitateko partaidetzaren ideia indartzen du.

Proiektuan parte hartu duten hiru ikastetxeak Eskolako Agenda 21 programan sartu dira eta ildo berean lanean jarraitzeko beren interesa azaldu dute. Horrela, proiektuan zehar egindako lanak jarraitasuna izango du Eskolako Agenda 21en bitartez eta ikasi duguna parte hartzen duten ikastetxe guztien zerbitzura dagoen baliabidea izango da.

Ondorioak: esperientzia hori beste ikastetxe batzuentzat baliagarria izan al daiteke?

9

Nahiz eta funtsean prozesu kualitatiboa izan den eta, ondorioz, inplikaturako pertsonen testuingurua eta bizipenak ezin diren zuzenean beste egoera batzuetara eraman, ausartzen gara gure bidea markatu duten eta beste prozesu batzuetarako gutxienez kontuan hartu beharreko elementu gisa gida izan daitezkeen alderdi batzuk adieraztera.

Horrela, *prozesua laguntzen duten* eta, ondorioz, ahal dugun neurrian indartu beharko ditugun faktore batzuk identifikatu ditugu.

- *Inguru koherentea izatea.* Eskolan hainbat eragile bizikidetu, sentsibilitate desberdinak azaldu eta existentzia ugari ateratzen dira. Horregatik, egunero egiten ditugun gauza txikiei koherentzia eta zentzu orokorra emango dien erreferentzia bat izan behar dugu.
- *Ildo estrategiko bat markatzea.* Inguru koherente bat izateak epe luzerako estrategia bat definitzeko aukera ematen digu eta horrek hezkuntza-komunitate horren identitatea indartu eta momentuaren larrialdien arabera zabuka ibiltzea saihestuko du.
- *Lehentasunak ezartzea.* Askotan guztia egiteko gai izan ez garenaren sentsazioa dugu eta zereginen sakabanatzeak urduritasuna eragiten digu. Argi dagoena da ezin dugula eta ez ditugula gai guztiak batera jorratu behar, dauzkagun denbora eta baliabideak, materialenak nahiz pertsonenak, mugatuak direlako.
- *Proiektuetan oinarrituta lan egitea.* Horrelako proiektuetan murgiltzen garenean badakigu *luzerako* delako, benetan ez da inoiz amaitzen, etengabeko hobekuntzako prozesua delako. Beraz, garrantzitsua da tartekoak diren eta lor daitezkeen helburuak markatzen dituzten epe laburrarako proiektuak definitzea.
- *Proiektu banatua.* Proiektu banatuak hezkuntza-komunitatearen ideia indartzen du. Erabakiak banatuta, komunitateko kide guztiek parte hartuta hartzen diren neurrian, proiektuak bere interes eta beharrei erantzun die eta, ondorioz, horien inplikazioa sustatuko du. Beste alde batetik, proiektu banatuak taldean lan egiteko dinamika pertsonalak gainditzea eskatzen du.
- *Gida metodologiko egokia edukitzea.* Batzuetan zailena zein bide jarraitu, nola egin, prozesuak nahiz emaitzak nola ebaluatu jakitea da. Teoria, beste talde batzuen hezkuntzako praktika eta esperientziarekin batera, gida gisa erabili dezakegu. *Ikerketa-ekintzak* eskaintzen duen eredia baliozkoa da eta testuinguru desberdinetara egokitu daiteke.
- *Kanpoko laguntza izatea.* Argi izan behar dugu inork ez duela gure lana egingo, eta protagonismoa hezkuntza-komunitateak izan behar duela. Hala eta guztiz ere, kanpoko babesek paper garrantzitsua izan

dezakete, baliabideak, esperientziak, aintzatespena, *jakintzak* eta egiteko moduak eskaintzen dizkigutela. Mota desberdinetakoak izan daitezke:

- Beste ikastetxe batzuekin sarean lan egitea.
 - Administrazioaren babesa izatea programa edo deialdi jakinen bitartez, diru-laguntzen lerroak...
 - Gai jakin batzuetako adituak: metodologia, ebaluazioa...
- *Kudeaketa, curriculum eta antolamendua bateratzea*. Proiektuak hiru alderdi horiek bildu behar ditu diskurtsoaren, praktikaren eta erlazionatzeko moduaren artean beharrezko koherentzia mantentzeko.
- *Tresna egokiak edukitzea*. Taldeko dinamika, erabakiak hartzeko prozesu, ebaluazio-teknika eta abarrez ari gara. Gauzak erraztu, debora aurreztu eta proiektu handiak eguneroko gauza txikietan gauzatu laguntzen diguten tresnak dira. Horregatik, tresna desberdinekin esperimentatu behar dugu eta duten erabilgarritasunaren arabera aukeratu.

Prozesua oztopatzen duten eta, ondorioz, minimizatzen saiatu behar dugun *alderdiei* dagokienez, honakoak aipa ditzakegu:

- *«Funtsezkoa» denaz ez arduratzea*. Zer ulertzen dugu hezkuntzarekin? zein hezkuntza-proiektu nahi dugu? zein balio transmititu nahi ditugu? Eskolan badaude jakintzat ematen ditugun gai batzuk, ulertzen da oinarrizko gaiekin ados gaudela, espediente bat idatzi beharreko agiri horietakoren batean biltzen direla. Beste batzuetan eztabaida alde batera uzten dugu «hori teoria delako, filosofia merkea, eta gurea praktika da, gela». Azal hori pixka bat urratzen badugu, ziurrenik harritu egingo gara, konturatuko gara termino berekin gauza desberdinak azaldu nahian gabiltzala eta, ondorioz, gure praktika dibergentea dela. Gauza ez da estilo eta izaerak bat egitea, taldean lan egitea baizik, lortu nahi dugunaren eta nola lortuko dugunaren inguruan ados jartzea.
- *Segurtasun eta esperientziarik ez izatearen sentazioa*. Hori gairatzeko modu bakarra hastea da: egin ez ikasten da. Kanpoko laguntza bereziki interesgarria izango da hasieran.
- *Irakasleen egonkortasun falta*. Administrazioak mota horretako proiektuak egiten diren ikastetxeetan gutxieneko egonkortasuna bermatu beharko luke. Edonola ere, hezkuntza-komunitateko kide berriak informatu eta hartzeko tresnak ezarri behar ditugu, bereziki irakasleak badira, hezkuntzako profesional diren aldetik, prozesuko eragile aktibo izan behar dutelako.
- *Denbora falta*. Irakasleek maizen adierazitako zailtasunetariko bat denbora falta eta eskolan egiten diren zereginen ugartasuna da. Horrek, batzuetan, garrantzitsua dena premiazkoa denaz arduratzeko baztertzeara eragiten du. Izan ere, denbora arrazionalki kudeatu behar dugun baliabide mugatuetariko bat da. Lehentasunak ezarri, erantzukizun eta zereginak banatu, lanak egoki koordinatu eta bilerak modu eraginkorrean kudeatzea dira hori lortzen lagun diezaguketen neurri batzuk.

Eranskinak



Atal honetan ikastetxeek proiektuan zehar erabilitako tresna edota garatuko ekintza batzuk biltzen dira. Ideia alderdi batzuk nola landu direnaren inguruko ikuspegi zehatzagoa ematea da, kolektiboen dibertsitatea, ekintza-motak eta lan-esparrua kontuan hartuz. Ondoko koa-droan azalpeneko erreferentzia labur bat ematen da.

Dokumentua	Kolektibo hartzailea	Agiri-mota	Jardueraren helburua
1. Familientzako oharra	Familiak	Jakinarazpen-oharra	Familiak informatzea, beren lankidetzara eskatu edo eskertzea...
2. Bakarririk joan naiteke eskolara?	Ikasleak eta familiak	Galdetegia	Mugikortasun-ohiturei buruzko informazioa bildu, hausnartu eta alternatibak proposatzea.
3. Familientzako inkesta	Familiak	Inkesta	Egindako ekintzak baloratzea (triptikoak)
4. Ikasleentzako inkesta	Bere eskolako prestakuntza-prozesua amaitzen duten ikasleak (Lehen Hezkuntzako 6. maila)	Inkesta	Ingurumen-hezkuntzako ikaskuntza-prozesua ebaluatzea (jarduerak, ohiturak...). Proposamenak biltzea.
5. Lurraren kontratua	Ikasleak	<i>Konpromisoen kontratua</i>	Hartu dituzten konpromisoak bildu eta ikusgarri egitea.
6. Patruila berdea	Ikasleak	Erregistro-orria	Ekoauditoria egiteko informazioa biltzea.
7. Proiektuaren jarraipena	Irakasleak	Kontrol-zerrenda	Egindako jardueren jarraipena eta balorazioa egitea.
8. <i>Definizioa</i>	Irakasleak	Taldeko lanen proposamena eta erregistroa	<i>Ingurumen kalitateko eskolarekin</i> zer ulertzen dugunaren definizio adostura iristea.
9. Guraso-eskola	Familiak	<i>Buletin Berdea Familiak</i> buletinaren aipamena	Familiaren prestakuntza eta parte-hartzerako bidea eskaintzea.
10. Alkatearekin elkarrizketa	Ikasleak	Eskolako aldizkariko aipamena	Eskolaren eta udalerriarren arteko erlazioa sustatzea, gai komunen ezagutza eta horien inguruko interesa handituz.
11. Komposta	Ikasleak	Eskolako aldizkariko aipamena	Hondakinen eta birziklatzearen gaia landu eta esperimintatzea, eskolako barnearen inguruan.
12. Familiekiko komunikazioaren eta horien partaidetza ebaluazioa	Familiak	Egindako galdetegiaren emaitzak	Familiari ematen zaien informazioa (edukia, hizkuntza-trataera...) eta gurasoek eskolan duten partaidetza ebaluatzea.

	Lateorro LHI	1. DOKUMENTUA Familientzako oharra
--	---------------------	---

Laudio, 2003ko martxoaren 20a

Guraso agurgarriak:

Zuen seme-alabek lehenengo hiruhilabetekoan ingurumenaren inguruan, energiari buruz zehazkiago, egin zituzten ekintzetan zuengandik jaso zuten laguntza eskertu nahi dizuegu.

Halaber, hiruhilero ezaguna duzuen triptikoa jasoko duzuela eta, horretaz gain, ikasturte honetan zehar parte-hartze aktiboa eskatuko zaizuela jakinarazten dizuegu.

Hondakin-gaiez (kutzak, tapoiak, jogurt-poteak, latorriak, artilea, plastikozko botilak...) egingdako eskulan bana burutzea izango da hiruhilabete honetarako zuen seme-alabei eskaini beharreko laguntza.

Zuen irudimena erabiltzera animatzen zaituztegu, martxoaren 31 bitarte jasotako eskulanekin erakusketa bat antolatu ahal izateko.

INGURUMEN BATZORDEA

Lateorro LHI**2. DOKUMENTUA
Bakarrik joan
naiteke eskolara?**

Inkesta hau hiru zatitan banatuta dago:

- Eskolara bakarrik etortzen direnak.
- Eskolako autobusean edo auto pribatuan etortzen direnak.
- Oinez baina helduren batekin etortzen direnak.

Dagokizuen zatia betetzera animatzen zaituztegu.

Inkesta hau eskolara bakarrik etortzen direnek beteko dute

Zenbat denbora ematen duzu etxetik eskolaraino?

- 5 minutu
 5-10 minutu
 10-15 minutu
 15-20 minutu
 20 minututik gora

Zenbat kale zeharkatu behar duzu eskolara iritsi aurretik? _____

Kale horietako zenbatetan dago semaforoa? _____

...eta oinezkoentzako pasagunea? _____

Badago leku arriskutsuren bat eskolako bidean?/ _____

Zein? _____

Nahiago zenuke eskolaraino helduren batek laguntzea ala atsegin duzu zeure kasa etortzea?

Inkesta hau eskolako autobusean edo auto pribatuan etortzen direnek beteko dute

Zergatik uste duzu aukeratu duela familiak autobusa edo autoa?

- Eskola etxetik urrun dagoelako.
- Bidea arriskutsua delako.
- Bizkorragoa eta erosoagoa delako.

Atsegin duzu garraioa erabiltzea ala nahiago zenuke oinez etorri? _____

Zergatik? _____

Inkesta hau eskolara oinez baina helduren batekin etortzen direnek beteko dute

Zergatik uste duzu eskolara heldu batekin etorri behar duzula?

- Oso bide luzea delako.
- Bidea arriskutsua delako.
- Eskola lantokiko bidean dagoelako.

Nahiago zenuke bakarrik etorri?? _____

Zeregatik? _____

* * *

Familia asko beren seme-alabei kaletik bakarrik joaten uztearen beldur dira, trafikoa aitzakia, besteak beste. Hori dela eta, gero eta ume gehiagoren askatasun-maila txikiagoa da: bidea aukeratzeko, eskolako bidean lagunekin hitz egiteko... Urte asko ez dira ohitura arruntak zirenetik, orain berriz, galtzera doaz.

Honen bitartez, autoa etxean uztera animatu nahi ditugu familiak, alde batetik eskolako sarrera-irteeran sortzen diren trabak ekiditeko eta, bestetik, umeei lagunekin edo familiartekoekin hitz egiteko aukera eskaintzeko.

Laudio, 2002ko ekainaren 7a

Lateorro LHI**3. DOKUMENTUA
Familientzako inkesta**

Guraso agurgarriak:

Dakizuenez 1993-94 ikasturteaz geroztik Lateorro LHI ingurumen-hezkuntzaren inguruko zenbait ekintza egiten ari da eta, hori dela-eta, behin baino gehiagotan sariak jaso izan ditu:

- 1994ko ekaina: Arabako Foru Aldundiak deitutako Ingurumen Babeserako lehiaketan lehengo saria.
- 1995eko ekaina: CENEAM-ek luzatutako gonbitea Valsain-era (Segovia) joateko, non, Naturaren Babeserako Europar urtea zela-eta, Sofia Erreginak diploma-oroigarria banatu baitzuen.
- Urte horretantxe urrezko intsignia eman zigun Laudioko udalak, udalerrian burututako ingurumenaren aldeko lanagatik.
- 2000ko urtarrila: orduko Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailburuak, Patxi Ormazabalek, Europako Ingurugiro Konfederazioaren Bandera Berdea eman zigun gure ikastetxean bertan.

Gauzatzen ditugun ekintzen partaide zuek ere izan zitezten, ikasgelan lantzen ditugun ingurumenari buruzko gaiak nahiz ikasgelako lanari jarraipena emateko zuen etxeetan praktikara eramán ditzakezuen aholku batzuk jasotzen dituen triptiko bat hiruhilero zuei bidaltzea ego-kitzat jo genuen 2001-02 ikasturte honen hasieran.

Orain ikasturtea amaitzear dagoela eta hiru triptikoak jasota dauzkazuela, aipatutako gaiari buruz zuen iritzia ezagutzea gustatuko litzaiguke. Hortaz, jarraian azaltzen den inkesta bete eta eskolako sarreretan jarri diren postontzietan utz dezazuen eskatzen dizuegu.

Azkenik, zuen iritzia balio handikoa dela gogoraraziz, eskainitako laguntza eskertu nahi dizuegu.

KLAUSTROA

1. Triptikoa jasotzeari interesgarria al deritzozue?

Oso interesgarria Interes gutxikoa Berdin zaigu Ez zaigu interesatzen

2. Hiruhilero triptiko bat jasotzeari zer deritzozue?

Gehiegi da Ongi dago Gutxi da Berdin zaigu

3. Azaltzen den informazioa bada...

Gehiegizkoa Nahikoa Urria Oso urria

4. Jasotzen dugunean....

- irakurri eta gure seme-alabekin komentatzen dugu;
- begirada bat ematen diogu eta beste zenbait paperekin uzten dugu;
- paperontzira botatzen dugu zuzenean.

5. Triptikoetan azaltzen diren aholkuetariko batzuk praktikara eramaten al dituzue?

Bai Saiatzen gara Nahi dugu, baina zaila egiten zaigu
 Zentzugabekeria iruditzen zaigu

6. OHARRAK edo IRADOKIZUNAK

Laudio, 2002ko ekainaren 7a

	Lateorro LHI	4. DOKUMENTUA 6. mailako ikasleentzako inkesta
--	---------------------	---

Eskola uzteko momentua ailegatu zaizue eta datorren ikasturtean beste ikastetxe batean egongo zarete. Izan ere, alde egin baino lehen, ingurumen lanari buruzko iritziak eta proposamenak eskatu nahi dizkizuegu, hori oso garrantzitsua izango baita gure lana aurrera eramateko eta, bide batez, eskola hobetzeko.

Eskerrik asko eta zorte on hemendik aurrera!!!

1. Eskolan sartu zinenetik ingurumenari buruzko zenbait ekitalditan parte hartu eta gauza asko ikasi dituzu. Ahalegin bat egin eta idatzi gogoratzen dituzunak:

Gela batetik ateratzerakoan argia itzali behar da.

2. Aipatutakoen artean, zeintzuk dira hoberen barneratu dituzunak?

3. Zeintzuk dira etxean praktikan jartzen dituzunak?

4. Eta kalean lagunekin zaudenean?

5. Urte hauetan egin ditugun ekintzen artean, aipa itzazu gehien gustatu zaizkizun hiru:

6. Eta gutxien gustatu zaizkizun beste hiru:

7. Ingurumena lantzen jarraitzeko eta eskola hobetzeko proposamenak idatzi:

CEP SERANTES LHI
SANTURTZI

**INGURUMEN KALITATEKO
IKASTETXEA**
2003-2004 proiektua

5. DOKUMENTUA
Lur kontratua

1. Papera, beira, plastikoa, pilak etab... behar den lekuan botako ditugu.
2. Argia behar dudanean erabiliko dut, bestela itzaliko dut.
3. Txorrotak irekita badaude itxiko ditugu.
4. Gure ingurumena garbi mantendu: lan mahaia, gela, jantokia, espazio amankomunak...
5. Papera bi aldeetatik erabiliko dugu, birziklatu aurretik.
6. Hitz egiterakoan ahots tonua zainduko dut (ez ditugu aulkiak eta mahaia zarata eginez altxatuko).
7. Eskolako landareak eta arbolak zainduko ditugu.
8. Mendira edo hondartzara joaten garenean garbi utziko dugu, zakarrarik gabe.
9. Zaborra konketatik ez dugu botako.
10. Lagunen artean borrokak ez ditugu sortuko.

Sinadurak:

	Tere Bertiz	Maite Safón	
Julen Marcos	Odette Sanz	Irati García	Arrate Santamaría
Enara Díez	Hodeiertz Sanabria	Maite Marquina	J. Manuel Echevarría

CEP SERANTES LHI
SANTURTZI

**INGURUMEN KALITATEKO
IKASTETXEA**
2003-2004 proiektua

6. DOKUMENTUA
Patruila Berdea

EKOAUDITORIA FITXA

	DESKRIBAPENA	BAI	EZ	OHARRAK
BARRUKOA	1. Badago txorrotik irekita edo zisternarik tantaka?			
	2. Badago argirik piztuta behar ez denean? Non?			
	3. Ondo zainduta daude barruko landareak?			
	4. Alderdi estetikoa: apainketa, horma-irudiak... zainduta daude?			
	5. Badago paperik edo zikinkeriarik? Non?			
	6.			
	7.			
KANPOKOA	1. Lorategiak garbi daude?			
	2. Hondatutako landararik badago?			
	3. Patioak garbi daude?			
	4. Fatxadak narriadurarik badu?			
	5.			
	6.			

Balizko zergatiak

Barruko ekoauditorean:

Proposatutako irtenbideak:

Kanpoko ekoauditorian:

Proposatutako irtenbideak:

CEP SERANTES LHI
SANTURTZI

**INGURUMEN KALITATEKO
IKASTETXEA**
Lan egitasmoa

7. DOKUMENTUA
Proiektuaren
jarraipena

LEHEN HIRUHILEKOAN egindako jarduerak

JARDUERA		PARTAIDE- TZA	ASEBETETZE MAILA			CURRICULUME AN SARTU
		BAI/EZ	ONA	ARRUNTA	DESEGO- KIA	BAI/EZ
Hegaz- tien eguna	Bisita eta Panel Berdearen iruzkina					
	Fitxako beste jarduerak batzuk (adierazi zein, eskerrik asko)*					
Erreka- eguna	Bisita eta Panel Berdearen iruzkina					
	Fitxako beste jarduerak batzuk (adierazi zein, eskerrik asko)**					
1. jarduera: Zer da natura?						
2. jarduera: 3. zikloko egindako horma-irudia bisitatu dugu						
3. jarduera: Gelako zereginak (zereginen bat falta bada edo soberan badago adierazi, eskerrik asko)***						
4. jarduera: Kontratua						
Irakasleen zarata saioa. 10. dok.: jarrerak eta jokaerak landu ditugu (ikus adostasunak)						
UNITATE DIDAKTIKOA: ZARATA	1. ekintza: Zarata-iturriak					
	2. ekintza: Entzuten ikasten					
	3. ekintza: Ibilaldi bat egitera goaz					
	4. ekintza: 6 soinu x 6 zarata					
	5. ekintza: Zarata neurtzen					
	6. ekintza: Isiltasuna existitzen da					
	7. ekintza: Zaratekin jolasean					
	8. ekintza: Zaratak ere kutsatzen du					
	9. ekintza: Bideo bat ikusi					
	10. ekintza: Horma-irudi bat egin					
	11. ekintza: Horma-irudi definitua					
	12. ekintza: Zarataren termometroa					
	13. ekintza: Zaratari buruzko inkestak					
	14. ekintza: Grafiko bat egin					
	15. ekintza: Natura entzun					

CEP SERANTES LHI
SANTURTZI

LAN EGITASMOA
Definizioa: Ingurumen Kalitateko
Ikastetxea

8. DOKUMENTUA
Definizioa

HELBURUAK:

1. Taldean lan egitea ekarpenak adostuz.
2. *Kalitateko ikastetxea* definitzea.
3. Gure ikastetxearen *ingurumen* ezaugarriarekin zer ulertzen dugun adostea talde handian.

PROZESUA:

Prozesua: Banaka edo binaka gure ikastetxearentzako ingurumen-kalitatea zer den definitzea.

Bigarren aldi batean, talde ertainean, osagaien ekarpenekin definizio bat adostuko da.

Azken aldian bi edo hiru definizioak azalduko dira horien edukia aztertuz eta azken definiziora iristen saiatuz.

Ingurumen kalitateko ikastetxea da

Ingurumen kalitateko ikastetxea da

Ingurumen kalitateko ikastetxea da

CEP SERANTES LHI
SANTURTZI

**INGURUMEN KALITATEKO
IKASTETXEA**
Lan egitasmoa

9. DOKUMENTUA
Guraso eskola

GURASO ESKOLA

Gure proiektuak ondo zaintzen duen alderdi bat *prestakuntza eta partaidetza* da. Eta, ildo horretan, Familia Eskola beste pauso bat da.

Zertan datza Familia Eskola?

«Astero bildu gara bost egunez ordu eta erdiko saioan eta besteak beste, Ana M.^a Pérezek (AGINTZARI gizarte-ekimeneko kooperatibarekin lankidetzan jarduten den psikologoa) zuzendutako hausnarketa eta elkarrizketaren bitartez gure seme-alaben hezkuntzaren inguruko zailtasunak argitzen saiatu gara. Batzuetan informazioa, esperientzia falta zaigu, eta besteetan zeregina ikaragarria iruditzen zaigu. Jardunaldi horien bitartez, guztiok batera parte hartuz ikusi genuen ez dela hain zaila, gure seme-alabez asko goza dezakegula, benetan ez garela hain gaizki egiten ari eta hobetu dezakegula. Horrez gain, beste haur batzuen familiak ezagutzeko aukera izan dugu eta behin baino gehiagotan barre ere egin dugu.

Ondoko gaiak jorratu ditugu: “Arauk eta mugak: zenbat, nola, noiz...” eta “Hezkuntza afektibo-sexuala”.

Inkestek asebetetze-maila altua adierazi dute, bai eta gure seme-alaben mundu zoragarria beste ikuspegi batetik ikusteko aukera eta bertan aktiboki parte hartzeko atsegina eskain diezaguketean topaketa horiekin jarraitzeko eskaera ere.

Nire poztasuna adierazi behar dut, taldea saiatua, langilea izan delako eta nire zereginen gustura jardutea eragin baitu.

Datozen topaketetan zuen konpainiaz gozatzen jarraitu ahal izatea eta hauek bezain atseginak eta produktiboak izatea espero dugu.»

Ana M.^a Pérez

ESKOLAKO AGENDA 21

Aurten gure proiektuan, lehenengo pausoak eman ditugu:

- EA21en arduradunarentzako prestakuntza. Beste ikastetxeekin koordinazioan jardutea.
- Lur Kontratua sinatzea.
- Irakasleentzako «Taldekako dinamika» prestakuntza egitea.
- «Esku-lana familian» kanpaina aurkeztea.
- Hondakinen inguruko ekintzen plana abian jartzea.
- Ingurumen Batzorde Txikiaren lehenengo bilera egitea.
- Patruila Berdearen lehenengo ekintzak egitea.

INGURUMENA HOBETZEN

**UGARO HERRI
IKASTETXEA**

ELKARRIZKETA

**10. DOKUMENTUA
Alkatearekin
elkarrizketa**

Otsailaren 17an 4. mailako ikasleak Legorretako alkate den Xabier Iraolarengana joan ginen. Harrera ona izan genuen udaletxean eta areto nagusian sartu ondoren, eseri eta berehala galderak egiteko prest geunden. Alkateak, berehala erantzun zituen gure galderak, nahiz eta zenbait kasutan kopeta zimurtu beharra izan zuen gure galdera zehatzen erantzuna aurkitu nahian.

Beste gauzen artean, bera prest dagoela adierazi zigun hurrengo legealdian udalaren ardura berriro hartzeko.

Hona hemen galderak:

Herriari buruzko informazioa

- Zenbat etxebizitza daude?
400 etxebizitza inguru daude.
- Zenbat biztanle?
1.373 biztanle daude.
- Zenbat auzo?
10 auzo inguru daude.
- Zenbat baserri?
27 baserri inguru.
- Zenbat fabrika?
12 fabrika inguru.
- Egingo al da igerilekua?
Oraingoz ez da egingo igerilekua.

Araztegia

- Noiz jarri behar duzue martxan?
Martxo bukaeran. 6 hilabeteko froga egingo dute.
- Zenbat biltegi daude?
4 biltegi.
- Nola geratuko da araztegiaren ondorioz?
Garbiagoa espero dugu.

- Amuarrainak izango al dira?
Arrain gehiago egotea espero dugu.

Eguzki-plakak eta eskola

- Garrantzitsua al da eguzki-plakak herriari ematen dion indarra?
Bai, oso garrantzitsua da, baina oso gutxi.
- Herrian zehar aldaketa, berrikuntza asko egin dira, eraginik izango al du ikastetxearen inguruan?
Eskolako ingurua oinezkoentzako gune egiteko asmoa dugu.
- Aterpea egiterakoan haur txikiek erabiltzen zuten parkea kendu beharra izan zenuten. Zerbait pentsatu al duzue horri buruz?
Bi aukera daude, bata parke zaharra hona ekartzea edo bestea parke berria egitea. Arazo larriena, ekonomikoa da. Parkean drainadura jartzea izango litzateke garestiena.
- Ikastetxearen inguruko auzo berria dela-eta, gure eraikuntzako sarrera egokitzeko aukerak aztertu al dituzue?
Oraingoz ezinezkoa da.

Joan den otsailaren 17an, 4. mailako ikasleak udaletxera joan ginen Xabier Iraola, herriko alkatea, elkarrizketatzera. Oso ondo hartu gintuen eta adeitsuki erantzun zien gure galderi. Eskerrik asko.

UGARO IKASTETXEKO
ALDIZKARIA

5. ETA 6. MAILA

11. DOKUMENTUA
Konposta

Emaiza

- Guztira 909 kilo hondakin organiko bildu ditugu. Hortik, zenbat dira konposta? Ba... herena, hau da: $909:3 = 303$ kilo.
- Lehenengo ontziko gai organikoa konposta bihurtu da eta ongarri bezala erabiltzeko prest daukagu.

Ekainaren 4an, Ugara eskolako ateak zabaltzeko egunean, ikusteko aukera izango duzue.

Balorazioa

- Konposta egiten ikasi.
- Zabartegira zabor gutxiago bidali.
- Eta gainera, ekarri dugunarekin gure baratzerako eta negutegiko landareentzako ongarri naturala sortu dugu.

Ikasi duguna

- Hondakin organikoekin konposta egiten.
- Bost edo sei hilabete behar dira konposta heldu eta lur beltzaren itxura hartzeko.
- Bildu dugun gai organikoaren 100 kg-ko, 30 kg konpost aterako dira, herena, gutxi gora behera.
- Gutariko bakoitzak egunero 360 gr. hondakin organiko sortzen ditu gutxi gorabehera. Etxean 3 izanez gero egunero kilo bat, hilabete batean 30 kilo eta sei hilabetetan 180 kilo. Beraz, $180:3 = 60$ kilo konpost izango ditugu sukaldeko hondakinak bakarrik erabiliz gero.
- Aireztapena behar-beharrezkoa da. Zenbat eta sarriago harrotu gehiago laguntzen diozu ondo eta azkarrago osatzen.
- Harrotu ondoren tenperatura igo egiten dela sumatu dugu, izaki konpostatzaileek beren erreazioak egiteko gaitasuna berpizten dutelako. Ontziko hondakin organikoaren barnealdeko tenperatura 50°C -tik 70°C -ra irits daiteke.
- Eguraldi ona egiten duenean gaineko tapa irekita edukitzea komeni da. Euria hasten badu, noski, itxi egin behar da.
- Ez da ona konposta oso hezea egotea aire faltarengatik hartidurak gerta daitezkeelako, usain txarrak sortuz.
- Ez da ona oso lehorra egotea ere, organismoek beren lana geldituko dutelako.
- Banana- eta laranja-azalak, osorik behintzat ez dira ekarri behar, desegitea asko kostatzen zaielako.

– Ekartzen ditugun hondakinak ahal den txikituenak ekarriz ere prozesuari asko laguntzen diogu.

Bukatzeko... Zer esan? Zuek ere esperientzia egiten hasteko.

UGARO IKASTETXEKO
ALDIZKARIA

**FAMILIEKIKO KOMUNIKAZIOAREN
ETA HORIEN PARTAIDETZAREN
EBALUAZIOA**
Galdetegiaren emaitzak

12. DOKUMENTUA
Familiekiko
komunikazioaren

BANATU DEN GALDETEGI KOPURUA: 72

- Beltzez azpimarratu dira nagusitu diren erantzunak.
- Iradokizunak ez dira erantsi espazio-arazoa dela-eta, baina ziur izan kontutan hartuko direla.
- Banaturiko hiru galdetegiaren emaitzak bata bestearen atzetik adierazi dira jarraian.

INFORMAZIOA

- Erantzundakoak: 54
- Parte-hartzearen portzentajea: %75

OHARRAK ETA BIDALITAKO IDATZIAK

1. Ikastetxetik jasotzen duzun idatzizko informazioa garaiz iristen da:

0 = INOIZ EZ 1 = IA INOIZ EZ 27 = IA BETI 26 = BETI

2. Idatzizko informazioaren edukiak interesgarriak dira:

0 = INOIZ EZ 1 = IA INOIZ EZ 27 = IA BETI 26 = BETI

3. Idatzizko informazioa argia, ulerterraza izaten da:

0 = INOIZ EZ 1 = IA INOIZ EZ 27 = IA BETI 26 = BETI

4. Irakurtzen al dituzu?

47 = BETI 3 = GEHIENETAN 3 = BATZUETAN 1 = INOIZ EZ

EBALUAKETA TXOSTENAK

5. Txosten idatzien kopurua nolakoa iruditzen zaizu?:

19 = EGOKIA 30 = NAHIKOA 1 = ESKASA

6. Zure seme-alaben txostenak (ebaluaketakoak) nolakoak iruditzen zaizkizu?:

9 = OSO EGOKIAK 32 = EGOKIAK 4 = ERDIZKAKOAK
2 = ESKASAK 0 = OSO ESKASAK

7. Txostenetan arlo ezberdinei ematen zaien trataera eta espazioa nolakoa iruditzen zaizu?:

2 = OSO EGOKIA 48 = EGOKIA 1 = DESEGOKIA 0 = OSO DESEGOKIA

8. Txostenetan erabiltzen den hizkera ulergarria inuditzen al zaizu?

39 = BETI 9 = BATZUETAN 0 = INOIZ EZ

ANTOLAMENDUARI BURUZKO INFORMAZIOA

9. Zein azalpen gustatuko litzaizuke idatziz jasotzea eta zein ez?

Ikastetxearen funtzionamendua 46 BAI 5 EZ

Ikastetxearen proiektuak 48 BAI 3 EZ

Ikastetxearen zerbitzuak (jantokia, garraioa) 44 BAI 8 EZ

Eskolaz kanpoko ekintzak 51 BAI 1 EZ

Ikastetxeko arauak 48 BAI 2 EZ

10. Aurreko gaiei buruzko informazioa idatziz jasotzea baino nahiago al zenuke azalpenak zuzenean (batzar batean edo) ematea?

17 = BAI 12 = EZ 23 = BERDIN ZAIT

11. Zure nahiak edo proposamenak ikastetxeari helarazteko bideak nolakoak dira?

Dauden bideak egokiak dira 36 BAI 1 EZ

Dauden bideak nahikoak dira 23 BAI 2 EZ

Proposatutakoa ez da kontuan hartzen 10 BAI 13 EZ

Inoiz ez didate kasurik egiten 7 BAI 13 EZ

12. Ba al zenekien iradokizunen postontzi bat dagoela sarreran?

44 = BAI 10 = EZ

13. Postontzi hori erabilgarria iruditzen al zaizu?

48 = BAI 3 = EZ

14. Ikastetxearen bizitzaren ondorengo atalei buruz duzun ezaguera-maila nolakoa iruditzen zaizu?

Gaia	Ona	Nahikoa	Eskasa
Funtzionamendua	19	23	8
Zerbitzuak	20	24	6
Ingurumen proiektua	24	18	9
Bestelako proiektuak	10	24	12
Arauak	19	15	13
Ekintzak	26	15	9

AHOZKO HARREMANAK

15. Zure seme-alabaren irakasleekin ikasturtean zehar duzun elkarrizketa kopurua nolakoa da?

31 = EGOKIA 15 = NAHIKOA 5 = ESKASA

HIZKUNTZA TRATAERA

- Jaso diren galdetegiak: 48
- Parte-hartzearen portzentajea: %66,6

1. Familiaren ezagutza maila. Gurasoen euskararen ezaguera-maila nolakoa da?

	AITA	AMA
Bat ere ez	10	6
Ulertzen dut baina ez dut hitz egiten	12	10
Ulertu eta hitz egiten dut	12	12
Ulertu, hitz egin, irakurri eta idazten dut	19	26
<i>Euskararen erabilera etxean</i>		
Inoiz ez	10	6
Gutxitan	12	10
Batzuetan	4	4
Gehienetan	4	6
Beti	19	18
Seme-alabekin bakarrik	10	14

2. Ikastetxea D eredukoa izateari (irakasgai guztiak euskaraz irakasten dira gaztelania eta ingelesa ezik) zein balorazio egiten diozue?

Oso positiboa 23 Positiboa 18 Berdin zaigu 2 Gaizki 2 Oso gaizki

3. Oharretan, informazioetan, euskarari ematen zaion trataera (euskara hutsean edo elebidunak izatea) zer iruditzen zaizue?

Oso egokia 11 Egokia 34 Okerra 1 Oso okerra 2

4. Zuen ustez, herri-mailan ikastetxean egiten den lanaren (haurrak euskalduntzea, alegia) oihartzuna nolakoa da?

Handia 34 Erdizkakoa 13 Eskasa

5. Gurasoentzat alfabetatze- edota euskalduntze-ikastaroak antolatuz gero parte hartuko al zenukete?

Bai 11 Ez 19 Agian bai 18

(Oharra: galdera honetan kontuan hartzekoa prest daudenen kopurua da, erantzun nagusia ez izan arren.)

6. Ezagutzen al dituzue hizkuntzen trataeraren inguruan Ikastetxeak dituen irizpideak?

Bai 3 Gutxi gorabehera 19 Ez 18

7. Ados al zaudete irizpide hauekin?

Bai 15 Ez dakigu 19 Ez 3

PARTAIDETZA

— Erartzundakoak: 35

— Parte-hartzearen portzentajea: %48,6

1. Ezagutzen al dituzu ikastetxeak gurasoen partaidetzarako dituen organoak?

19 = Bai 4 = Ez 12 = Erdizka

2. Eskaintzen al du ikastetxeak gobernu organoetan parte hartzeko aukerarik?

1 = Oso gutxi 9 = Gutxi 15 = Nahikoa 9 = Asko

3. Eskolak antolatzen dituen ekintzen kopurua nolakoa dela esango zenukete? (hitzaldiak, jaialdiak, ospakizunak...)

0 = Oso gutxi 4 = Gutxi 22 = Nahikoa 7 = Asko

4. Garrantzitsua iruditzen al zaizue gurasoek ikastetxeko dinamikan parte hartzea?

0 = Batere garrantzirik gabekoa 0 = Garrantzi gutxikoa 3 = Neurri batean garrantzitsua
13 = Garrantzitsua 18 = Oso garrantzitsua

5. Zenbateko maiztasunarekin parte hartzen duzue ikastetxeko dinamikan?

2 = Inoiz ez 7 = la inoiz ez 13 = Batzuetan 8 = la beti 3 = Beti

6. Zuen erantzuna «ia inoiz ez» izan bada, azaldu arrazoa:

Ikastetxeak ez digulako biderik eskaintzen 1

Denborarik ez dugulako 7

Ekarpenik ez dugula egingo uste dugulako 2

MILA ESKER IZAN DUZUEN ARDURAGATIK,
GUZTION ARTEAN IKASTETXEA HOBETUKO DUGU, ZIUR IZAN!!!

Bibliografía

- BLANDEZ, J. (1996). *La investigación-acción: un reto para el profesorado*. Inde, Zaragoza.
- CARR, W. (1990). *Hacia una ciencia crítica de la educación*. Laertes, Barcelona.
- CEIDA. (1997). *Escuela ecológica*. Bilbo: Eusko Jaurlaritz.
- COLOM, A. J. (1993). «Situación actual de la educación ambiental». *Papers. Medio ambiente y educación* (La Caixa Fundazioa), martxoa, 15-27.
- COLOM, A.J. eta SUREDA, J. (1989). «La lectura pedagógica de la educación ambiental». In N. Martín Sosa (koord.), *Educación ambiental. Sujeto, entorno y sistema*. Salamanca: Amarú.
- DELORS, J. (koord.). *La educación encierra un tesoro. Informe a la UNESCO de la Comisión Internacional sobre la educación para el siglo XXI*. Madril: Santillana-UNESCO, 1996.
- EBBUTT, D. eta ELLIOT, J. (1990). «¿Por qué deben investigar los profesores?». In J. Elliot, *La investigación-acción en educación*. Madril: Morata.
- ELLIOTT, J. (1986). «Mejorar la calidad de la enseñanza mediante la investigación en la acción». In J. Elliot et al., *La Investigación-acción en el aula*. Valentzia: Generalitat Valenciana. Conselleria de Cultura, Educació i Ciència.
- ELLIOTT, J. (1990). *La investigación-acción en educación*. Morata, Madril.
- FREIRE, P. (1973). *La educación como práctica de la libertad*. Siglo XXI, Madril.
- EUSKO JAURLARITZA. *Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumeneko Esparru Programa (2002-2006). Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia (2002-2020)*. Bilbo: IHOBE, 2002.
- GONZÁLEZ SOLER, R. (1994). «El proceso de investigación-acción». In J.M. Correa (zuz.), *La educación ambiental: desarrollo de programas de investigación-acción en las escuelas*, XII. Uda Ikastaroak. Donostia: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- HABERMAS, J. (1987). *Teoría de la acción comunicativa*. Taurus, Madril.
- KEMMIS, S.-McTAGGART, R. (1988). *Cómo planificar la investigación-acción*. Laertes, Barcelona.
- LARA, R. (1992). *La investigación-acción en educación ambiental*. Ingurumen Hezkuntzako masterreko ikastaroa. Graduatuondoko programa 1990-1992. UNED-Fundación Universidad Empresa. Madril.

- LÓPEZ GORRIZ, I. (1988). «Algunas reflexiones sobre la investigación-acción». *Cuestiones Pedagógicas. Revista Universitaria*, 4-5.
- MARTÍNEZ HUERTA, J. (1996). *Educación ambiental en Euskadi. Situación y perspectivas*. Bilbo: Eusko Jaurlaritzia.
- MAYER, M. (1990). «L'educazione ambientale in Italia: problemi e prospettive». In G. Eulefeld eta M. Mayer (koords.), *L'educazione ambientale dentro e fuori la scuola*. Seminario Italo-Tedesco mintegiko aktak. Villa Vigoni, Menaggio (Como), martxoak 6-9, 1989. DGU/IPN/CEDE.
- ORDEN, A. DE LA (1989). «Educación y ambiente». In A. López López eta F. Martín-Molero (koords.), *Actas del I Congreso Internacional sobre Educación Ambiental (44-50. or.)*. Madril: ICONA.
- STENHOUSE, L. (1987a). *Investigación y desarrollo del currículo*. Morata, Madril.
- STENHOUSE, L. (1987b). *La investigación como base de la enseñanza*. Morata, Madril.
- SUREDA, J. (1988). «Algunas consideraciones sobre los temas de la pedagogía ambiental: aspectos teóricos e históricos». *Bordón*, 1, 40, 13-28.
- SUREDA, J. (1990). *Guía de la educación ambiental. Fuentes documentales y conceptos básicos*. Bartzelona: Anthropos.
- UNESCO-PNUMA. (1988). *Estrategia internacional de acción en materia de educación y formación ambientales para el decenio de 1990*. Ingurumen-hezkuntza eta -prestakuntzari buruzko kongresua, Mosku 1987. Nairobi/Paris: UNESCO-PNUMA.
- UNESCO. (1997). *Educación para un futuro sostenible: una visión Transdisciplinaria para una acción concertada*. Nazioarteko konferentzia. Tesalonika, 1997. Paris: UNESCO.